



EKONOMI TALDEA

BALANTZEEN ANALISIA
ARIKETAK

Egilea: **Pello Juaristi**

ELKAR

Hezkuntza Sailak onetsia: 1990.eko urtarrila

© ELHUYAR, K.E. Urbieta 7-3.a. 20006 DONOSTIA

© ELKAR, S.A. Esterlines 10. 20003 DONOSTIA

Lege-gordailua: NA. 105-1990

ISBN: 84-7529-775-7

Inprimatzailea: Lizarra Inprimategia, S.L. Tafallarako bidea, 1. km. Lizarra (Nafarroa)

AURKIBIDEA


	<u>Or.</u>
BALANTZEEN ANALISIA (Esanahia eta eskema)	5
1. ARIKETA: BERRIKUSPEN EDO IKUSKAPENA	6
2. ARIKETA: BERRIKUSPEN EDO IKUSKAPENA	12
3. ARIKETA: ERREBALORIZAZIO ETA EGUNERATZEA	18
4. ARIKETA: ERREBALORIZAZIO ETA EGUNERATZEA	23
5. ARIKETA: ONDARE-ANALISIA	28
6. ARIKETA: ONDARE-ANALISIA	36
7. ARIKETA: ONDARE-ANALISIA	43
8. ARIKETA: ONDARE-ANALISIA	50
9. ARIKETA: FINANTZ ANALISIA	57
10. ARIKETA: FINANTZ ANALISIA	65
11. ARIKETA: FINANTZ ANALISIA	72
12. ARIKETA: FINANTZ ANALISIA	79
13. ARIKETA: ANALISI EKONOMIKOA	87
14. ARIKETA: ANALISI EKONOMIKOA	91
15. ARIKETA: ANALISI EKONOMIKOA	96
16. ARIKETA: ANALISI EKONOMIKOA	98
17. ARIKETA: ANALISI EKONOMIKOA	101
18. ARIKETA: ANALISI EKONOMIKOA	104
19. ARIKETA: BALANTZEEN ANALISI OSOA	107
20. ARIKETA: BALANTZEEN ANALISI OSOA	115

BALANTZEEN ANALISIA (Esanahia eta eskema)

Esanahia

Balantzean agertzen diren kontuen IKERKETA eta INTERPRETAZIOA da, ikuspuntu EKONOMIKO, FINANTZARIO eta KONTABLEtik, egindako gestioa, egungo egoera eta etorkizunerako aurrikuspenak analizatzeko asmoz.

Analisiaren eskema:



Balantze-analisia egiteko oinarritzko EGOERA-ORRI FINANTZARIOAK honakoak dira:

- * BALANTZEAK
- * EMAITZA-KONTUAK
- * Beste zenbait EGOERA-ORRI (Irabazi-banaketaren proposamenak, Altxortegi-koadroak, baliabideak, inbertsioak...)

1. ARIKETA. BERRIKUSPEN EDO IKUSKAPENA

ORUR S.A.ren ondarea ondoko datuetatik ateratzen da: Kutxa 60.000, Merkatal fondoa 170.000, Bankuak ageriko k/k 45.000, Bezeroak 120.000, Kobratzeko merkatal efektuak 90.000, Hornitzaileak 55.000, Ibilgetua 2.100.000, Jesapenak 750.000, Erreserbak 639.000, Hainbat hartzekodun 35.000, Salgaiak 240.000, Gizarte-segurantza 4.000, Konstituzio-gastuak 38.000, Kapitala 1.300.000, Galdu-irabaziak 80.000 pta.

Enpresa honen zuzendaritzari ez zaio egokia iruditzen aurreko kontuek azaltzen duten egoera. Beraz, Ikuskari bati enkargatu diote kontabilitatea egiazta dezan.

Berrikuspen edo Ikuskapena egin ondoren zera ikusten da:

- 1.- Kutxan, kontaketa egin ondoren, 35.000 pta. eskudirutan eta pertsonalari emandako aurrerakin-baletan adierazita dauden 15.000 pta. agertzen dira.
- 2.- Merkatal fondoari emandako balioan, traspaso-eskubideei dagozkien 80.000 pta. daude sartuta.
- 3.- Bankuak kontuan, 50.000 pta.ko saldo zordunak eta 5.000 pta.ko zorpekoa agertzen dira.
- 4.- 15.000 pta. zor duen bezero bat ordainketa-etenduran aurkitzen da. Hori dela eta, dagokion hornidura zuzkitu da.
- 5.- Kobratzeko merkatal efektuen barnean, bezero batek itzultitako 8.000 pta.ko letra bat dago. Oraingoan, itzultze horren arrazoiak ez dira ezagutzen.
- 6.- Hornitzaileen saldoan 3 urterako, %8ko interes-tasan hartutako 20.000 pta.ko mailegua azaltzen da.
- 7.- Ibilgetuak, orain dela 4 urte erositako edifizio eta makineria batzen ditu; dakigunez, makineriaren balioa edifizioak balio duenaren laurdena da. Amortizaziorako, bestalde, %2,5 (edifizioa) eta %10eko (makineria) zuzkidura egin da. Pasibora dagokion zatia eraman nahi da.
- 8.- Erreserbak honela sailkatzen dira: legalak 120.000, estatutukoak 200.000 eta borondatezkoak gainerakoa. Azken hauetan, 75.000 pta. autoaseguru-aurrikuspenari dagokio.
- 9.- Hainbat hartzekodunen saldoak jesapenen interesei dagozkie. Interes horiek obligaziodun baten aldekoak dira, bere helbidea ezezaguna delarik. Denbora iragan delako, enpresaren aldeko bihurtu da.
- 10.- Salgaien artean 90.000 pta. kostatu zen kontu-sail bat agertzen da, baina egungo prezioa 35.000 pta.koa bakarrik dela kalkulatu da.
- 11.- Konstituzio-gastuak, orain dela 5 urte egin zen kapital-zabalkuntzari dagozkio. Zenbatekoa, 50.000 pta.koa izan zen eta urtero %10 amortizatzen da.

- 12.– Gizarte–segurantzari 18.000 pta. zor zaizkio. Diferentzia, oraindik kontabilizatu gabe dauden karga sozialei dagokie.
- 13.– Iberdurerori dagokion 8.000 pta.ko faktura ordaintzeko dago; bulegoko materialaren izakinak 5.000 pta.koak dira.
- 14.– Bigarren sei hilabetekoari dagozkion %9ko jesapen–interesak kontabilizatu gabe daude. Baita 500 pta.ko 100 obligazioen amortizazioa ere.

Guzti hori kontutan hartuta:

- a) Berrikuspena egin aurretik EGIAZTAPEN–BALANTZEA osatu.
- b) Egindako IKUSKAPENA kontuan izanik, idatz itzazu liburu egunkarian aldaketak aurkeztu behar dituzten idazpenak.
- c) EGOERA–BALANTZEA osatu, enpresaren emaitza eta ondare–errealak azalduz.

Ebazpidea:

- a) Egiaztapen–balantzea, berrikusi aurretik.

AKTIBOA		PASIBOA	
Kutxa	60.000	Hornitzaileak	55.000
Merkatal fondoa	170.000	Jesapena	750.000
Bankuak k/k	45.000	Erreserbak	639.000
Bezeroak	120.000	Hainbat hartzekodun	35.000
Kobratzeko m. efektuak	90.000	Gizarte–segurantza	4.000
Ibilgetua	2.100.000	Kapital soziala	1.300.000
Salgaiak	240.000	Galdu–irabaziak	80.000
Konstituzio–gastuak	38.000		
	<hr/>		<hr/>
TOTALA	2.863.000	TOTALA	2.863.000

- b) Idazpenak liburu egunkarian (egindako ikuskapenaren ondorioz):

1	<hr/>	xxx	<hr/>
	15.000	Ordainketa–aurrerakinak	
	10.000	Galdu–irabaziak (1)	
		Kutxa	25.000
		Diru eza dela eta	
2	<hr/>	xxx	<hr/>
	80.000	Traspaso–eskubideak	
		Merkatal fondoa	80.000
	<hr/>		<hr/>

3	5.000	Bankuak, ageriko k/k	xxx	Epe laburrerako maile- guak (2)	5.000
		k/kan izandako aurrerakinak			
4.a	15.000	Kobranta dudagarriko bezeroak	xxx	Bezeroak	15.000
		Ordainketa-etenduran dagoen bezeroa			
4.b	15.000	Galdu-irabaziak (1)	xxx	Kaudimengabeziatarako hornidura	15.000
		Horniduraren zuzkidura			
5	8.000	Merkatal efektu ordaindugabeak	xxx	Kobratzeko m. efektuak	8.000
		Bezero batek itzultitako letra			
6	20.000	Hornitzaileak	xxx	Epe ertainerako maile- guak (harturikoak)	20.000
		3 urterako maileguak			
7	2.000.000	Edifizioak eta beste zenbait eraikuntza (3)	xxx		
	500.000	Makineria, instalazioak eta tresneria		Ibilgetua	2.100.000
				Ibilgetu mat. amort. metatua	400.000
8	639.000	Erreserbak	xxx	Erreserba legalak	120.000
				Estatutu-erreserbak	200.000
				Borondatezko erreserb.	244.000
				Autoaseguru-aurrikus.	75.000
		Erreserben banaketa			
9	35.000	Hainbat hartzekodun	xxx	Galdu-irabaziak (1)	35.000
		Gure aldeko bihurtu diren interesak			
10	55.000	Galdu-irabaziak (1)	xxx	Salgaien balio galeraga- tiko hornidura	55.000
		Salmenta-prezioaren murrizketa			

11	13.000	Galdu-irabaziak (1)	xxx		
	25.000	Kapital-zabalkuntzaren		gastuak	
				Konstituzio-gastuak	38.000
12	14.000	Galdu-irabaziak (1)	xxx		
	4.000	Gizarte-segurantza		Gizarte-segurantzako	
				organismoak, hartzek.	18.000
13	5.000	Ordainketa aurrez eginak	xxx		
	3.000	Galdu-irabaziak (1)		Ordainketa geroratuak	8.000
		Bulego-materialaren izakinak		eta Iberdueroren aldeko faktura	
14.a	750.000	Jesapenak	xxx		
		Kontu honen saldoagatik		Obligazio eta bonu arrun-	
		Amortizatzeko tituluak		tak	700.000
				Hartzekodun ez-komer-	
				tzialak, oblig. amortiza-	
				zioagatik	50.000
		100 obligazioen amortizazioa			
14.b	33.750	Galdu-irabaziak (1)	xxx		
				Ordaintzeko interesak,	
				mugaeguneratugabeak	33.750

c) Azken egoera-balantzea

BALANTZEA

AKTIBOA

IBILGETUA:		2.295.000
* MATERIALA		
(202) Edifizioak eta beste zenbait eraik.	2.000.000	
(203) Makineria, inst. eta tresneria	500.000	
– (280) Ibilgetu mat. amortizazio metatua	<u>– 400.000</u>	
	2.100.000	
* INMATERIALA		
(212) Merkatal fondoa	90.000	
(213) Eskualdatze-eskubideak	<u>80.000</u>	
	170.000	
* GASTU AMORTIZAGARRIAK		
(272) Kapital-zabalkuntzaren gastuak	<u>25.000</u>	
	25.000	

IZAKINAK:		185.000
(300) Salgaiak	240.000	
– (390) Salgaien baliogalerag. hornidura	– 55.000	
ZORDUNAK:		210.000
(430) Bezeroak	105.000	
(450) Kobratzeko merkatal efektuak	82.000	
(455) Merkatal efektu ordaindugabeak	8.000	
(460) Ordainketa–aurrerakinak	15.000	
(435) Kobrantza dudagarriko bezeroak	15.000	
– (490) Kaudimengab. hornidura	– 15.000	
FINANTZ KONTUAK:		85.000
(570) Kutxa	35.000	
(572) Bankuak k/k	50.000	
PERIODOKATZEAGATIKO DOIKUNTZAK:		5.000
(480) Ordainketa aurrez eginak	5.000	
EMAITZAK		28.750
(890) Galdu–irabaziak	28.750	
TOTALA		2.808.750

PASIBOA

KAPITALA ETA ERRESERBAK:		1.864.000
(100) Kapital soziala	1.300.000	
(113) Erreserba legalak	120.000	
(115) Estatutu–erreserbak	200.000	
(116) Borondatezko erreserbak	244.000	
AURRIKUSPENAK:		75.000
(122) Autoasegurua	75.000	
EPE LUZE ETA ERTAINERAKO ZORRAK:		720.000
(150) Obligazio eta bonu arruntak	700.000	
(161) Epe ertainerako maileguak	20.000	
EPE LABURRERAKO ZORRAK:		108.000
(400) Hornitzaileak	35.000	
(477) G.Segurantza hartzekodun	18.000	
(500) Epe laburrerako maileguak	5.000	
(511) Hartzekodun ez–komertz.oblig. amortizaz.	50.000	
PERIODOKATZEAGATIKO DOIKUNTZAK:		41.750
(481) Ordainketa geroratuak	8.000	
(580) Ordaintzeko interesak ez mugaeguneratuak	33.750	
TOTALA		2.808.750

GALDU-IRABAZIAK

ZOR		HARTZEKO	
Kutxa-diferentziak	10.000	Hasierako saldo hartz.	80.000
Kaudimengabeziak	15.000	Gure aldeko bihurtu	
Salgaien depreziazioa	55.000	diren zorrak	35.000
Erosketa-gastuen amort.	13.000	Bulego-mat. izakinak	5.000
Kontabilizatu gabeko		Galera garbia	28.750
karga sozialak	14.000		
Gastu geroratuak	8.000		
Kontabilizatu gab. interesak	33.750		
TOTALA	148.750	TOTALA	148.750

- (1) Ikuskapen-prozesuan ikusitako desberdintasunak (gastu edo sarrera aldetik) adierazteko "Galdu-irabaziaz" kontua soilik erabiltzen da, emaitza-kontuak erregularizatuta daudelako.
- (2) Kontabilitate-plan orokorrean kontu egokirik ez dugunez, bankuan agertzen den zorpetze hori epe laburreko mailegu kontsideratzen dugu.
- (3) Edifizioaren kostuari x deitzen badiogu, bere egungo balioa $0,9x$ izango da, zeren 4 urtetan amortizatu bait da, urtean $\%2,5 = \%10$; makineriaren kostua $\frac{x}{4}$ izango da eta bere egungo balioa $\frac{0,6x}{4}$, 4 urtetan amortizatu delako, urtean $\%10 = \%40$. Beraz:

$$0,9x + \frac{0,6x}{4} = 2.100.000$$

Eta hemendik $x = 2.000.000$ ateratzen da.

Edifizioaren balioa =	2.000.000;	amortizaz. ($\%10$) =	200.000;	balio garbia =	1.800.000
Makineriar. balioa (1/4) =	<u>500.000;</u>	amortizaz. ($\%40$) =	<u>200.000;</u>	balio garbia =	<u>300.000</u>
Totala	2.500.000		400.000		2.100.000

- (4) 5 urteei dagokien amortizazioa, honakoa da:

$$5 \times \frac{50.000}{10} = 25.000$$

Beraz, amortizatzeke falta den zenbatekoa hau izango da = $50.000 - 25.000 = 25.000$ eta sortzen den diferentziak ($38.000 - 25.000 = 13.000$) galera adierazten du.

2. ARIKETA. BERRIKUSPEN EDO IKUSKAPENA

ALKORTA, S.A.ren balantzea, ekitaldi kontablearen bukaeran, ondokoa da:

AKTIBOA		PASIBOA	
Kutxa	950.000	Kapital soziala	10.000.000
Bankuak, ageriko k/k	1.310.000	Erreserbak	2.220.000
Ibilgetu inmateriala	1.250.000	Obligazio eta bonu arruntak	2.750.000
Bezeroak	1.450.000	Epe ertain. maileguak	800.000
Kobratzeko m.efek.	1.100.000	Hornitzaileak	1.250.000
Salgaiak	1.400.000	Galdu-irabaziak	1.015.000
Enbalajeak	100.000		
Konstituzio-gastuak	350.000		
Ibilgetu materiala	10.125.000		
TOTALA	18.035.000	TOTALA	18.035.000

Enpresa honetako zuzendaritzari ez zaio egokia iruditzen balantzean agertzen diren kontuen egoera eta, beraz, ikuskari bati enkargatu diote kontabilitatea egiaztatzea. Berrikuspena egin ondoren zera ikusten da:

- 1.- Kutxan, kontaketa egin ondoren, 960.000 pta. eskudirutan eta 80.000 pta.ko ordaindugabeko nomina bat azaltzen dira.
- 2.- Bankuan, 1.350.000 pta.ko saldo zordunak agertzen dira. Diferentzia, oraindik kontabilizatu gabe dauden interesei dagokie.
- 3.- Ibilgetu inmateriala: 1.250.000 pta. Zenbateko hori garbia da (kostua – amortizazio metatua). Orain dela 5 urte erositako jabetza industrial eta traspaso-eskubideak batzen ditu. Dakigunez, traspaso-eskubideen balioa jabetza industrialari zegokion laurdena izan zen. Amortizazioak, urteko %10 zuzkitu dira elementu bietan eta, kontabilitatean adierazi nahi dira.
- 4.- Bezeroen artean, 250.000 pta. zor duen bat porrot-egoeran dagoela jakin dugu, dagokion hornidura zuzkituz.
- 5.- Kobratzeko efektuetan, ordaindu gabe eta protestatua dagoen 120.000 pta.ko letra bat azaldu da.
- 6.- Salgaiak, balantzean agertzen den balioaren %10 depreziatu dira. Baliogalera hori ez da aurretik kontuan izan eta kontabilizatu egin da, dagokion hornidura zuzkituz.
- 7.- Erreserbak honela banatzen dira: legalak 620.000 pta., estatutukoak 1.200.000 eta borondatezkoak 400.000 pta.
- 8.- Obligazio eta bonu arruntak: 500 pta. nominaleko 5.500 obligazio dira, %8ko interes-tasan.

- 9.– Epe ertainerako maileguak: Bilboko Bankuarekin akordatutako mailegu bati dagokio, urteko %10eko interes–tasan eta 12 hilabetean itzultzeko.
- 10.– Ibilgetu materiala: 10.125.000 pta. Kopuru hori garbia da eta edifizioak, garraio–elementuak eta 3.000.000 pta.ko lurak barne hartzen ditu. Dakigunez, lurren balio erreala 2.500.000 pta.koa da, jasan duen depreziazioa dela medio, eta dagokion zuzkidura egina dagoelarik. Bestalde, edifizioak eta garraio–elementuak, orain dela 5 urte erosi ziren, garraio–elementuen balioa edifizioaren 1/3 zelarik. Edifizioak %3 eta garraio–elementuak %10 amortizatu dira. Horrela kontabilizatu nahi da, aktibora aipaturiko elementuak eta pasibora dagokion zatia pasatuz.
- 11.– Hornitzaile–saldoetan, Telefonikarekin sortutako 75.000 pta.ko ordaintzeko faktura agertzen da.
- 12.– Azken hiruhilabetekoari dagozkion obligazioen interesak eta 1.000 obligazioen amortizazioa kontabilizatu gabe daude.
- 13.– Iberdueroren 16.000 pta.ko faktura ordaintzeko dago. Bulegoko materialaren izakinak 8.000 pta.koak dira.

Guzti hori kontutan harturik:

- a) Liburu egunkarian idazpenak egin, aldaketak agerteraziz.
 b) Egoera–balantzea egin, enpresaren emaitza eta ondare erreala azalduz.
 c) "Galdu–irabaziak" kontua idatzi.

Ebazpidea:

- a) Idazpenak liburu egunkarian (egindako errebisioaren arabera):

1	10.000	Kutxa	xxx		
	70.000	Galdu–irabaziak (1)		Oraindik pagatu gabeko ordainketak	80.000
		Diru gehiago eta ordaindu gabeko nominaz			
2	40.000	Bankuak k/k	xxx		
		Gure aldeko interesak		Galdu–irabaziak (1)	40.000
3	2.000.000	Jabetza industrial (2)	xxx		
	250.000	Traspaso–eskubideak		Ibilgetu inmateriala	1.250.000
				Ibilgetu inmaterialaren amortizazio metatua	1.000.000

4.a	250.000	Kobrantza dudagarriko bezeroak	250.000
		Porrot egin duen bezeroa	
4.b	250.000	Galdu-irabaziak (1)	250.000
		Arriskutik babesten da	
5	120.000	Merkatal efektu ordaindugabeak	120.000
		Ordaindugabeko letra	
6	140.000	Galdu-irabaziak (1)	140.000
		Salgaien baliogaleratik babesten da	
7	2.220.000	Erreserbak	2.220.000
		Erreserba legalak	620.000
		Estatutu-erreserbak	1.200.000
		Borondatezko erreser.	400.000
		Erreserben banaketa	
8		Ondo dago. Beraz, ez da ezer egiten	
9	800.000	Epe ertainerako maileguak	800.000
		Epe laburrean (12 hilabetean) bueltatu behar da	
10	7.500.000	Edifizioak eta beste eraikuntzak (3)	7.500.000
	2.500.000	Garraio-elementuak	2.500.000
	3.000.000	Lurra eta ondasun naturalak	3.000.000
		Ibilgetu materiala	10.125.000
		Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	2.375.000
		Lurren baliogaleragatiko hornidura	500.000
11	75.000	Hornitzaileak	75.000
		Telefonikarekin duen zorra	

12			xxx		
	500.000	Obligazio eta bonu arruntak			
	55.000	Galdu-irabaziak (1)	Ordainketa geroratuak	500.000	
			Ordaintzeko interesak,		
			mugaeguneratu gabeak	55.000	
		Obligazioen interesak eta amortizazioa			
13			xxx		
	8.000	Galdu-irabaziak (1)			
	8.000	Ordainketa aurrez eginak			
			Ordainketa geroratuak	16.000	

- (1) Errebisio-prozesuan ikusten diren aldaketak "Galdu-irabaziak" kontua erabiliz egiten da gastuak edo sarrerak adierazita, emaitza-kontuak erregularizaturik aurkitzen direlako. Lana errazteko ez du kontu horiek zabaltzerik merezi.
- (2) Jabetza industrialari x deitzen badiogu, bere egungo balioa $0,5x$ izango da, zeren 5 urtetan amortizatu bait da: urtean $\%10 = \%50$; traspaso-
-eskubidearen balioa $\frac{x}{4}$ izango da eta bere egungo balioa $\frac{0,5x}{4}$, 5 urtean depreziatzen joan delako: urtean $\%10 = \%50$.

Dakigunez, traspaso-
-eskubideak ez dira amortizatzen zeharkako metodoa erabiliz; baizik eta metodo zuzenaz, "Aparteko emaitzak" kontua zordunduz. Beraz:

$$0,5x + \frac{0,5x}{4} = 1.250.000$$

Eta hemendik $x = 2.000.000$ ateratzen da.

Jabetza-industrialak =	2.000.000;	amort. (%50) =	1.000.000;	balio garbia =	1.000.000
Traspaso- -eskubideak =	<u>500.000;</u>	deprez. (%50) =	<u>250.000;</u>	balio garbia =	<u>250.000</u>
Totala	2.500.000		1.250.000		1.250.000

- (3) Edifizioaren kostuari x deitzen badiogu, bere egungo balioa $0,85x$ izango da, 4 urtean amortizatu delako, urtean $\%3 = \%15$; garraio-
-elementuen kostua $\frac{x}{3}$ izango da eta bere egungo balioa $\frac{0,5x}{3}$, 5 urtean amortizatu delako; urtean $\%10 = \%50$. Beraz:

$$x + \frac{x}{3} + 3.000.000 - 0,15x - \frac{0,5x}{3} - 500.000 = 10.125.000$$

$$x = 7.500.000$$

Edifizioaren balioa =	7.500.000;	amort. (%15) =	1.125.000;	balio garbia =	6.375.000
G-elementuen bal. =	2.500.000;	amort. (%50) =	1.250.000;	balio garbia =	1.250.000
Lurren balioa =	<u>3.000.000;</u>	Depreziazioa =	<u>500.000;</u>	balio garbia =	<u>2.500.000</u>
Totala	13.000.000		2.875.000		10.125.000

b) Azken egoera balantzea

BALANTZEA

AKTIBOA

IBILGETUA:		11.725.000
* MATERIALA		
(200) Lurrak eta ondasun naturalak	3.000.000	
– (290) Lurren baliogaleragatiko hornidura	– 500.000	
(202) Edifizioak eta beste zenbait eraikuntza	7.500.000	
(204) Garraio–elementuak	2.500.000	
– (280) Ibilgetu mat. amortizazio metatua	<u>– 2.375.000</u>	
	<u>10.125.000</u>	
* INMATERIALA		
(211) Jabetza–industrialak	2.000.000	
(213) Traspaso–eskubideak	250.000	
– (281) Ibilgetu inmaterialen amortizazio met.	<u>– 1.000.000</u>	
	<u>1.250.000</u>	
* GASTU AMORTIZAGARRIAK		
(270) Konstituzio–gastuak	<u>350.000</u>	
	<u>350.000</u>	
IZAKINAK:		1.360.000
(300) Salgaiak	1.400.000	
(380) Enbalajeak	100.000	
– (390) Salgaien baliogaleragatiko hornidurak	– 140.000	
ZORDUNAK:		2.300.000
(430) Bezeroak	1.200.000	
(450) Kobratzeko merkatal efektuak	980.000	
(455) Merkatal efektu ordaindugabeak	120.000	
(435) Kobrantza dudagarriko bezeroak	250.000	
– (490) Kaudimengabeziatarako hornidura	– 250.000	
FINANTZ KONTUAK:		2.310.000
(570) Kutxa	960.000	
(572) Bankuak k/k	1.350.000	
PERIODOKATZEAGATIKO DOIKUNTZAK:		8.000
(480) Ordainketa aurrez eginak	8.000	
TOTALA		17.703.000

PASIBOA

KAPITALA ETA ERRESERBAK:		12.220.000
(100) Kapital soziala	10.000.000	
(113) Erreserba legalak	620.000	
(115) Estatutu-erreserbak	1.200.000	
(116) Borondatezko erreserbak	400.000	
EPE LUZE ETA ERTAINERAKO ZORRAK:		2.250.000
(150) Obligazio eta bonu arruntak	2.250.000	
EPE LABURRERAKO ZORRAK:		2.130.000
(400) Hornitzaileak	1.175.000	
(500) Epe laburrerako maileguak	800.000	
(410) Hainbat hartzekodun	75.000	
(511) Oraindik pagatu gabeko ordainketak	80.000	
PERIODOKATZEAGATIKO DOIKUNTZAK:		571.000
(481) Ordainketa geroratuak	516.000	
(580) Ordaintzeko interesak ez mugaeguneratuak	55.000	
EMAITZAK:		
(890) Galdu-irabaziak	532.000	
TOTALA		<u>17.703.000</u>

c)

GALDU-IRABAZIAK

ZOR		HARTZEKO	
Soldata eta kutxa-diferentzia	70.000	Hasierako saldo hartzekodunak	1.015.000
Kaudimengabeziak	250.000	Gure aldeko interesak	40.000
Salgaien depreziazioa	140.000		
Ordaintzeko interesak	55.000		
Doikuntzak	8.000		
Irabazi garbia	532.000		
TOTALA	<u>1.055.000</u>	TOTALA	<u>1.055.000</u>

3. ARIKETA. ERREBALORIZAZIO ETA EGUNERATZEA

AGIRRE enpresaren balantzeak, ekitaldi bukaeran, ondokoak dira:

AKTIBOA	BALANTZE ERREALA	BALANTZE OFIZIALA
Kutxa	650.000	150.000
Bankuak k/k	320.000	50.000
Bezeroak	280.000	100.000
Zordun atzerritarrak (1)	50.000	50.000
Kotizazio ofizialeko akzioak (2)	400.000	400.000
Mobiliario eta ekipamenduak (3)	<u>800.000</u>	<u>800.000</u>
	2.500.000	1.550.000
PASIBOA		
Amortizazio metatua (4)	400.000	400.000
Hornitzaileak	40.000	100.000
Erreserbak	1.060.000	50.000
Kapitala	<u>1.000.000</u>	<u>1.000.000</u>
	2.500.000	1.550.000

(1) Legrand jaunak zor duena: 4.000 franko 12,50 pta.n; itxiera–ganbioa 13,25 pta.koa da.

(2) 1.000 pta.ko 50 akzio, %400ean erositakoak = 200.000

100 \$eko 40 akzio, parean erositakoak, 50 pta/\$ = 200.000

400.000 pta.

Akzio espainolen azken seihilabetekoaren batezbesteko–ganbioa %350 da; itxiera–ganbioa %340koa.

Dolarraren itxiera–ganbio ofiziala 60 pta.koa da; erosketa–urteko koefizientea 1,80; balore atzerritarren burtsako egungo kotizazioa, %120koa da.

(3) Erosketa–urtekoari dagokion koefizientea 1,80 da; bere egungo prezio erreala, erregularizatutako zenbateko garbiari %20 kenduta estimatzen da.

(4) 5 urteko amortizazioak batzen ditu, urteko %10; dagozkien koefizienteak hauek dira: 1,8; 1,55; 1,35; 1,23 eta 1,08.

Guzti horiek kontutan harturik:

a) Balantze ofiziala errebalorizatu, erregularizazio–legearen arabera.

b) Idazpenak liburu egunkarian egin.

c) Azken egoera–balantzea kalkulatu.

Ebazpidea:

a) Balantze ofizialaren errebalorizazioa:

- (1) Atzerriko moneta, eskubide eta zorrak, balantzea ixtean agertzen den gantzio-ofizialaz baloratzen dira.

$$4.000 \times 13,25 = 53.000 \text{ pta.}$$

- (2) ⊗ Errenta aldakorreko balore higigarri espainolak, ondorengo bi kalkulu hauetan ateratzen den balio txikienaz baloratzen dira:

a) Burtsan aurreko seihilabeteetan izandako batezbesteko gantzioaz:

$$50 \times 1000 \times \frac{350}{100} = 175.000 \text{ pta.}$$

b) Erregularizatzen den balantzearen itxiera-kotizazioaz:

$$50 \times 1000 \times \frac{340}{100} = 170.000 \text{ pta. Txikiena denez, balantzera joango da.}$$

⊗ Elkarte atzerritarrei dagozkien baloreak, ondorengo kalkulu hauetan ateratzen den balio txikienaz baloratzen dira:

a) Moneta atzerritarra x erosketa-kotizazioa x gantzio-ofiziala:

$$40 \times 100 \quad \times \quad \frac{100}{100} \quad \times \quad 60 = 240.000 \text{ pta.}$$

Txikiena denez, balantzera joango da.

b) Erosketa-prezioa (pta.tan) x dagokion erregularizazio-koefizientea:

$$\frac{200.000}{1} \quad \times \quad 1,8 = 360.000 \text{ pta.}$$

c) Moneta atzerritarra x egungo-kotizazioa x gantzio-ofiziala:

$$4 \times 100 \quad \times \quad \frac{120}{100} \quad \times \quad 60 = 288.000 \text{ pta.}$$

- (3) Ibilgetu elementuak ondorengo kalkuluetan ateratzen den balio txikienaz baloratzen dira:

- a) Kostua x erosketaren urteko koefizientea – amortizazioak x zuzkitu-tako urteei dagozkien koefizienteak.

$$\text{Kostua x erosketaren-urteko koefizientea} = 800.000 \times 1,8 = 1.440.000$$

Amortizazioak	x	koefizienteak:	=	
80.000	x	1,8	=	144.000
80.000	x	1,55	=	124.000
80.000	x	1,35	=	108.000
80.000	x	1,23	=	98.400
<u>80.000</u>	x	1,08	=	<u>86.400</u>
400.000				560.800

$$\text{Balio garbia erregularizatuta} = 1.440.000 - 560.800 = 879.200 \text{ pta.}$$

- b) Egungo balio errealaz:

$$879.200 \times \frac{80}{100} = 703.360 \text{ pta. Txikiena denez, balantzera joango da.}$$

Kasu honetan ez dakigu kostua eta amortizazioa zenbat errebalorizatu diren. Horregatik, kalkulatzea komeni zaigu:

$$800.000 + 640.000x - (400.000 + 160.800x) = 703.360 \Rightarrow \Rightarrow 0,633055$$

$x \Rightarrow$ errebalorizazio-tasa unitarioa

Kostua	800.000	
+ Errebalorizazioa (640.000x0,633055)	<u>405.155</u>	1.205.155 pta.
Amortizazio metatua	400.000	
+ Errebalorizazioa (160.800x0,633055)	<u>101.795</u>	<u>-501.795</u> pta.
Balio garbia errebalorizatua		703.360 pta.

Plusbalioak hauek dira:

Zordun atzerritarrak	53.000 – 50.000 =	3.000
Akzioak	(170.000+240.000) – 400.000 =	10.000
Mobiliarioa	703.360 – 400.000 =	303.360

Ondare ezkutuak:		
Kutxa	500.000	
Bankuak	270.000	
Bezeroak	180.000	
Hornitzaileak (1)	<u>60.000</u>	1.010.000

b) Beraz, liburu egunkarian honako idazpenak egin behar ditugu:

		xxx		
3.000	Zordun atzerritarrak			
10.000	Kotizazio ofizialeko akzioak			
			Erregularizazio-kontua	13.000
		xxx		
405.155	Mobiliarioa eta ekipamenduak			
			Ibilgetu materialaren	
			amortizazio metatua	101.795
			Erregularizazio-kontua	303.360
		xxx		
500.000	Kutxa			
270.000	Bankuak			
180.000	Bezeroak			
60.000	Hornitzaileak			
			Erregularizazio-	
			-kontua	1.010.000

c)

AZKEN EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA

IBILGETUA:		703.360
* MATERIALA		
(205) Mobiliarioa eta ekipamendua	1.205.155	
– (280) Ibilgetu materialaren amortizazio met.	<u>– 501.795</u>	
	703.360	
ZORDUNAK:		333.000
(430) Bezeroak (2)	333.000	
FINANTZ KONTUAK:		1.380.000
(532) Kotizazio ofizialeko akzioak	410.000	
(570) Kutxa	650.000	
(572) Bankuak eta K.e. ageriko k/k	320.000	
TOTALA		<u>2.416.360</u>

PASIBOA

KAPITALA ETA ERRESERBAK:		2.376.360
(100) Kapital soziala	1.000.000	
(112) Erregularizazio-kontua	1.326.360	
(116) Borondatezko erreserbak	50.000	
EPE LABURRERAKO ZORRAK:		40.000
(400) Hornitzaileak	40.000	
TOTALA		<hr/> 2.416.360

- (1) Pasibo galdagarria desagertzeagatiko plusbalioa
(2) Kontu honetan bezeroak + zordun atzerritarrak ditugu.

4. ARIKETA. ERREBALORIZAZIO ETA EGUNERATZEA

LARRAURI enpresaren balantzea, ekitaldi-bukaeran, ondokoa dugu:

AKTIBOA		PASIBOA	
Kutxa	200.000	Hornitzaileak	300.000
Bankuak k/k	100.000	Hartzekodun atzerri-	
Bezeroak	150.000	tarrak (6)	240.000
Zordun atzeritarrak (1)	360.000	Amortizazio metatua (5)	1.450.000
Kotiz. ofiz. akzioak (2)	832.500	Erreserbak	152.500
Makineria (3)	2.000.000	Kapitala	4.500.000
Edifizioak (4)	3.000.000		
TOTALA	6.642.500	TOTALA	6.642.500

(1) A. Marshallen zorra: 3.000 £ 120 pta/£; itxiera-ganbioa 120,75 pta.koa da.

(2) 500 pta. nominaleko 75 akzio, %300ean erositakoak = 112.500
100 £ nominaleko 90 akzio, parean erositakoak, 80 pta/£ = $\frac{720.000}{832.500}$

Akzio espainolei dagokien azken sei hilabetekoaren batezbesteko ganbioa %350 da; itxiera-ganbioa %320.

£ren itxiera-ganbioa ofiziala 85 pta.; 1968.ean erositakoak dira. Burtsako egungo kotizazioa %130ekoa da.

(3) Makineria: 2.000.000 pta., 1967.ean erosita; bere egungo prezio erreala erregularizatutako zenbateko garbiari %10 gehituta estimatzen da.

(4) Edifizioak: 3.000.000 pta., 1967.ean erosita; bere egungo prezio erreala erregularizatutako zenbateko garbiari %20 kenduta estimatzen da.

(5) Makineriarena: 5 urteko amortizazioak batzen ditu, %10 eta 1967.ean hasita.

Edifizioena: 5 urteko amortizazioak batzen ditu, %3 eta 1967.ean hasita.

(6) A. Lemarchandi zor dioguna: 20.000 franko 12 pta/f.; itxiera-ganbioa 11,25 pta.koa da.

Beste zenbait datu: kutxa 250.000, bankuak 115.000, bezeroak 140.000, erreserbak 199.500, hornitzaileak 308.000 eta kapitala 4.500.000 pta.

Guzti horiek kontutan harturik:

- Balantzea errebalorizatu, erregularizazio-legearen arabera.
- Idazpenak liburu egunkarian idatzi.
- Azken egoera-balantzea kalkulatu.

Ebazpidea:

- a) (1) Moneta, atzerriko eskubide eta zorrak, Balantzea ixterakoan agertzen den ganbio–ofizialaz baloratzen dira.

$$3.000 \times 120,75 = 362.250 \text{ pta.}$$

- (2) ⊗ Errenta aldakorreko balore higarri espainolak ondorengotik ateratzen den balio txikienaz baloratzen dira:

- a) Burtsan aurreko seihilabetean izandako batezbesteko ganbioaz:

$$75 \times 500 \times \frac{350}{100} = 131.250 \text{ pta.}$$

- b) Erregularizatzen den Balantzearen itxiera–kotizazioaz:

$$75 \times 500 \times \frac{320}{100} = 120.000 \text{ pta.}$$

Txikiena denez, balantzerara joango da.

- ⊗ Elkarte atzerritarrei dagozkien baloreak ondorengotik ateratzen den balio txikienaz baloratzen dira:

- a) Moneta atzerritarra x Erosketa–kotizazioa x Ganbio–ofiziala:

$$90 \times 100 \times \frac{100}{100} \times 85 = 765.000 \text{ pta.}$$

- b) Erosketa–prezioa (pta.tan) x dagokion Erregularizazio–koefizientea:

$$720.000 \times 1,55 = 1.116.000 \text{ pta.}$$

- c) Moneta atzerritarra x Egungo–kotizazioa x Ganbio–ofiziala:

$$90 \times 100 \times \frac{130}{100} \times 85 = 884.500 \text{ pta.}$$

- (3) Ibilgetu–elementuak ondorengotik ateratzen den balio txikienaz baloratzen dira:

- a) Kostua x Erosketa–urteko koefizientea – Amortizazioak x zuzkitutako urteei dagozkien koefizienteak.

MAKINERIA

$$\text{Kostua x Erosketa-urteko koefizientea} = 2.000.000 \times 1,80 = 3.600.000$$

Amortizazioak	x	Koefizienteak:	=	
200.000	x	1,80	=	360.000
200.000	x	1,55	=	310.000
200.000	x	1,55	=	310.000
200.000	x	1,55	=	310.000
200.000	x	1,35	=	270.000
<hr/>				
1.000.000				1.560.000

$$\text{Balio garbia erregularizatuta} = 3.600.000 - 1.560.000 = 2.040.000 \text{ pta. Txikiena denez balantzera joango da.}$$

$$\text{b) Egungo balio-errealaz: } 2.040.000 + 2.040.000 \times \frac{10}{100} = 2.244.000 \text{ pta.}$$

EDIFIZIOAK

$$\text{a) Kostua x Erosketa-urteko koefizientea} = 3.000.000 \times 1,80 = 5.400.000$$

Amortizazioak	x	Koefizienteak:	=	
90.000	x	1,80	=	162.000
90.000	x	1,55	=	139.500
90.000	x	1,55	=	139.500
90.000	x	1,55	=	139.500
90.000	x	1,35	=	121.500
<hr/>				
450.000				702.000

$$\text{Balio garbia erregularizatuta} = 5.400.000 - 702.000 = 4.698.000 \text{ pta.}$$

$$\text{b) Egungo balio-errealaz:}$$

$$4.698.000 - 4.698.000 \times \frac{20}{100} = 3.758.400 \text{ pta.}$$

Txikiena denez, balantzera joango da.

Kasu honetan ez dakigu kostua eta amortizazioa zenbat gehitzen diren. Horregatik, kalkulatzeko komeni zaigu:

$$3.000.000 + 2.400.000 x - (450.000 + 252.000 x) = 3.758.400$$

$$x = 0,562569/\text{Gehikuntzaren tasa unitarioa}$$

Kostua	3.000.000	
+ Gehikuntza (2.400.000x0,562569)	<u>1.350.165</u>	4.350.165
Amortizazio metatua	450.000	
+ Gehikuntza (252.000x0,562569)	<u>141.765</u>	-591.765
		<hr/>
Gehikuntzaren balio garbia		3.758.400

- (6) Moneta, atzerriko eskubide eta zorrak, balantzea ixterakoan agertzen den ganbio-ofizialaz baloratzen dira:

$$20.000 \times 11,25 = 225.000 \text{ pta.}$$

b) Liburu egunkariko idazpenak

		xxx	
2.250	Zordun atzerritarrak		
52.500	Kotizazio ofizialeko akzioak		
15.000	Hartzekodun atzerritarrak		
			Erregularizazio-kontua 69.750
		xxx	
1.600.000	Makineria		
1.350.000	Edifizioak		
			Ibilgetu materialaren amortizazio metatua 701.765
			Erregularizazio-kont. 2.248.235
		xxx	
50.000	Kutxa		
15.000	Bankuak		
			Bezeroak 10.000
			Erreserbak 47.000
			Hornitzaileak 8.000

c) Azken egoera-balantzea

AKTIBOA		
IBILGETUA:		5.798.235
* MATERIALA		
(202) Edifizioak eta beste zenbait eraik.	4.350.000	
(203) Makineria, instalazioak eta tresneria	3.600.000	
– (280) Ibilgetu materialaren amortizazio met.	– 701.765	
ZORDUNAK:		502.250
(430) Bezeroak (2)	140.000	
(440) Zordun atzerritarrak	362.250	
FINANTZ KONTUAK:		1.250.000
(532) Kotizazio ofizialeko akzioak	885.000	
(570) Kutxa	250.000	
(572) Bankuak k/k	115.000	
TOTALA		7.550.485

PASIBOA		
KAPITALA ETA ERRESERBAK:		7.017.485
(102) Kapitala	4.500.000	
(112) Erregularizazio-kontua	2.317.985	
(113) Erreserbak	199.500	
EPE LABURRERAKO ZORRAK:		533.000
(400) Hornitzaileak	308.000	
(410) Hartzekodun atzerritarrak	225.000	
TOTALA		7.550.485

5. ARIKETA. ONDARE–ANALISIA

LAN–BI, S.A. enpresaren balantzeak, azken bi ekitaldiei dagozkienak, hauek dira (milaka pta.tan):

AKTIBOA	1	2
200 Lurrak eta ondasunak	5.000	8.550
202 Edifizioak	25.000	26.000
203 Makineria	15.000	18.000
204 Garraio–elementuak	—	8.000
310 Produktu bukatuak	3.000	4.150
350 Lehengaiak	2.000	3.500
430 Bezeroak	7.000	9.000
450 Kobratzeko merkatal efektuak	20.000	16.250
440 Hainbat zordun	3.000	1.000
570 Kutxa	4.000	3.000
572 Bankuak k/k	<u>16.000</u>	<u>12.750</u>
	100.000	110.200

PASIBOA	1	2
100 Kapital soziala	40.000	40.000
111 Aktiboa errebalor. plusb.	1.500	2.500
113 Erreserba legalak	5.000	3.500
115 Estatutu–erreserbak	3.500	1.250
160 Epe luzerako hartutako maileguak	20.300	20.300
176 Epe ertainerako hartzekodunak	9.700	11.200
280 Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	4.500	4.900
391 Izakinen baliog. hornidurak	500	300
400 Hornitzaileak	6.000	10.150
410 Hainbat hartzekodun	2.000	1.800
420 Ordaintzeko merkatal efektuak	<u>7.000</u>	<u>14.300</u>
	100.000	110.200

Informazio osagarria: Edifizioaren balioaren gehikuntza aktibo horren errebalorizazio–plusbalioagatik sortu da. Plusbalio hori ere pasiboan agertzen zaigu, hain zuzen.

Enpresa honek duen eredia hauxe da:

AKTIBOA	%	PASIBOA	%
Ibilgetua (garbia)	45	Kapitala eta erreserbak	50
Izakinak (garbiak)	5	Epe luz. eta ertain. zorrak	30
Bihurgarria	30	Epe labur. zorrak	20
Erabilgarria	20		

Guzti hori kontutan hartuta:

- 1.– Doikuntz idazpenak idatzi. Fondoer jatorria eta aplikazioaren egoera–orria egin.
- 2.– Fondoer jatorri eta aplikazioaren egoera–orriari buruz Kontabilitate–Plan Orokorrek bereizten dituen hiru zatiak kalkulatu eta interpretatu:
 - a) Baliabideen aplikazio iraunkorrak.
 - b) Lortutako baliabide iraunkorrak.
 - c) Zirkulatuzailearen aktiboko eta pasiboko aldaketak.
- 3.– Kontuak ereduak azaltzen dituen ondare–masetan sailkatuz, Aktibo eta Pasiboaren egitura eta eboluzioa kalkulatu eta interpretatu. Ereduarekin konparazioa egin eta desbidazioak azaldu.
- 4.– Ondare–koerlazioak eta dagozkien eboluzioak kalkulatu eta interpretatu. Manobra–fondo edo lanerako kapitala.
- 5.– Ondorioak idatzi.

Ebazpidea:

- 1.– a) Doikuntz idazpenak:

Edifizioak errebalorizatzegatik gehikuntzak: enpresarentzat ez du fondoer jatorri adierazten:

1.000	Aktiboaren birbalorizatiogatik plusbalioa Edifizioak eta beste zenbait eraikuntza	1.000
-------	---	-------

- b) Fondoer jatorria eta aplikazioaren egoera–orria:

Kontuak	1-1 (1. balantzea)	XII/31 (2. balantzea)	Diferentziak		Doikuntzak		Aplikazioa	Jatorria
			Zor	Hartzeko	Zor	Hartzeko		
AKTIBOA								
Lurrak eta ondasun naturalak	5.000	8.550	3.550	—	—	—	3.550	—
Edifizioak eta beste zenbait eraik.	25.000	26.000	1.000	—	—	1.000	—	—
Makineria, inst. eta tresneria	15.000	18.000	3.000	—	—	—	3.000	—
Garraio-elementuak	—	8.000	8.000	—	—	—	8.000	—
Produktu bukatuak	3.000	4.150	1.150	—	—	—	1.150	—
Lehengaiak	2.000	3.500	1.500	—	—	—	1.500	—
Bezeroak	7.000	9.000	2.000	—	—	—	2.000	—
Kobratzeko merkatal efektuak	20.000	16.250	—	3.750	—	—	—	3.750
Hainbat zordun	3.000	1.000	—	2.000	—	—	—	2.000
Kutxa	4.000	3.000	—	1.000	—	—	—	1.000
Bankuak k/k	16.000	12.750	—	3.250	—	—	—	3.250
TOTALAK	100.000	110.200						
PASIBOA								
Kapital soziala	40.000	40.000	—	—	—	—	—	—
Aktiboaren errealizazioagatikoa plusb.	1.500	2.500	—	1.000	1.000	—	—	—
Erreserba legalak	5.000	3.500	1.500	—	—	—	1.500	—
Estatutu-erreserbak	3.500	1.250	2.250	—	—	—	2.250	—
Epe luze hartutako maileguak	20.300	20.300	—	—	—	—	—	—
Epe ertainerako hartzekodunak	9.700	11.200	—	1.500	—	—	—	1.500
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	4.500	4.900	—	400	—	—	—	400
Izakinen balio galeragatikoa horidura	500	300	200	—	—	—	200	—
Hornitzaileak	6.000	10.150	—	4.150	—	—	—	4.150
Hainbat hartzekodun	2.000	1.800	200	—	—	—	200	—
Ordaintzeko merkatal efektuak	7.000	14.300	—	7.300	—	—	—	7.300
GUZTIRA	100.000	110.200	24.350	24.350	1.000	1.000	23.350	23.350

2.– a) Baliabideen aplikazio iraunkorrak

1. taldea: Oinarrizko finantzaketa	
11. Erreserbak (Erabilpena)	3.750
2. taldea: Ibilgetua	
20. Ibilgetu materiala (Erosketa)	14.550
Guztira	18.300

b) Lortutako baliabide iraunkorrak

1. taldea: Oinarrizko finantzaketa	
17. Epe luze eta ertainerako zorrak	1.500
2. taldea: Ibilgetua	
28. Ibilgetuaren amortizazioa	400
Guztira	1.900

Zirkulatzailaren murriztapen garbia = 18.300 – 1.900 = 16.400

c) Zirkulatzailaren aktiboko eta pasiboko aldaketak

ZIRKULATZAILEAREN AKTIBOKO ALDAKETA

3. taldea: Izakinak	
31. Produktu bukatuak	1.150
35. Lehengaiak	1.500
4. taldea: Trafiko–eragiketagatiko hartzekodun eta zordunak	
43. Bezeroak	2.000
44. Hainbat zordun	-2.000
45. Kobratzeko merkatal efektuak	-3.750
5. taldea: Finantz kontuak	
57. Altxortegia	-4.250
Batura	-5.350
Zirkulatzaillearen murriztapen garbia	<u>16.400</u>
Guztira	11.050

ZIRKULATZAILEAREN PASIBOKO ALDAKETA

3. taldea: Izakinak	
39. Izakinen balio galeragatiko hornidura	-200
4. taldea: Trafiko–eragiketagatiko hartzekodun eta zordunak	
40. Hornitzaileak	4.150
41. Hainbat hartzekodun	-200
42. Ordaintzeko merkatal efektuak	<u>7.300</u>
Guztira	11.050

Interpretazioa: Ekitaldian lorturiko baliabide iraunkorrak inbertsio eta aplikazio iraunkorrak baino txikiagoak izan dira. Beraz, enpresa honen egoera finantzarioak larrialdira doala erakusten du.

3.– Lehen urratsa balantzeak ondare–masatan sailkatzea da:

AKTIBOA	Ekitaldiak	
	1	2
Lurrak eta ondasunak	5.000	8.550
Edifizioak	25.000	26.000
Makineria	15.000	18.000
Garraio–elementuak	—	<u>8.000</u>
Guztira	45.000	60.550
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	<u>-4.500</u>	<u>-4.900</u>
IBILGETU GARBIA	<u>40.500</u>	<u>55.650</u>

Produktu bukatuak	3.000	4.150
Lehengaiak	<u>2.000</u>	<u>3.500</u>
Guztira	5.000	7.650
Izakinen baliogaleragatiko hornidura	<u>-500</u>	<u>-300</u>
IZAKIN GARBIAK	4.500	7.350
Bezeroak	7.000	9.000
Hainbat zordun	3.000	1.000
Kobratzeko merkatal efektuak	<u>20.000</u>	<u>16.250</u>
BIHURGARRIA	30.000	26.250
Kutxa	4.000	3.000
Bankuak k/k	<u>16.000</u>	<u>12.750</u>
ERABILGARRIA	20.000	15.750
		Ekitaldiak
	1	2
PASIBOA		
Kapital soziala	40.000	40.000
Aktiboa errebalor. plusbalioa	1.500	2.500
Erreserba legalak	5.000	3.500
Estatutu-erreserbak	<u>3.500</u>	<u>1.250</u>
KAPITALA ETA ERRESERBAK	50.000	47.250
Epe luzerako hartutako maileguak	20.300	20.300
Epe ertainerako hartzekodunak	<u>9.700</u>	<u>11.200</u>
EPE LUZE ETA ERT. ZORRAK	30.000	31.500
Hornitzaileak	6.000	10.150
Hainbat hartzekodun	2.000	1.800
Ordaintzeko merkatal efektuak	<u>7.000</u>	<u>14.300</u>
EPE LABURRERAKO ZORRAK	15.000	26.250

a) Aktibo eta pasiboaren egitura eta eboluzioa:

	Zenbatekoa			Zenbatekoa		
	1. ekitaldian	%	ZI	2. ekitaldian	%	ZI
Ibilgetu garbia	40.500	43	100	55.650	53	137
Izakin garbiak	4.500	4,5	100	7.350	7	163
Bihurgarria	30.000	31,5	100	26.250	25	87
Erabilgarria	20.000	21	100	15.750	15	78
	<u> </u>	<u> </u>	<u> </u>	<u> </u>	<u> </u>	<u> </u>
Guztira	95.000	100	100	105.000	100	110

PASIBOA

	Zenbatekoa			Zenbatekoa		
	1. ekitaldian	%	ZI	2. ekitaldian	%	ZI
Kapitala eta erreserbak	50.000	52	100	47.250	45	94
Epe luze eta ertainerako zorrak	30.000	31,5	100	31.500	30	105
Epe laburrerako zorrak	15.000	16,5	100	26.250	25	175
Guztira	95.000	100	100	105.000	100	110

Aurreko portzentaiak kontuan izanik, aktibo finkoa %43tik %53ra pasatzen da. Honek, hasiera batean, baliabideak ibilgeturik edukitzea esan nahi du eta ez da batere egokia.

Izakinak ere igo egiten dira, enpresari likidezia murrizten zaiolarik.

Bihurgarria eta erabilgarria behera datoz, likidezia murriztuz doala erakutsiz.

Pasiboari dagokionez, kapitala eta erreserbak murriztuz doaz eta datu hau gestio finantzarioari dagokionez ez da positiboa.

Epe luze eta ertainerako zorrak zertxobait jaitsi dira, baina ezer gutxi.

Epe laburrerako zorrak igoera handia izan dute, enpresa honek likideziarik ez duela azalduz.

b) Ereduarekiko izandako desbidazioak:

AKTIBOA	Desbidazioak			PASIBOA	Desbidazioak		
	Eredua	1	2		Eredua	1	2
Ibilgetu garbia	45	-2	8	Kapitala eta erreserbak	50	2	-5
Izakin garbiak	5	-0,5	2	Epe luze eta ert. zorrak	30	1,5	—
Bihurgarria	30	1,5	-5	Epe laburrerako zorrak	20	-3,5	5
Erabilgarria	20	1	-5				

Hemen ikusten dena honako hau da:

- 1) Ibilgetuaren, izakinen eta epe laburrerako zorren gehikuntza. Dakigunez, egoera honek likidezia eskasa izango dugula adierazten du. Baita ibilgetua epe laburrerako zorren bidez finantzatzen ari garela ere, baliabide iraunkorrak igo ordeztu jaitsi egin direlako. Portaera hau oso arriskutsua da.
- 2) Bihurgarria, erabilgarria eta fondo propioak jaitsi egin dira. Garbi dago enpresa honek hurrengo ekitaldietan likidezi falta izango duela,

orain deskapitalizatzen hasten bada eta hartzekodunen eskuetara eroriko da.

4.- Ondare-koerlazioak (Maniobra-fondoa = baliabide iraunkorrak – ibilgetua)

1. ekitaldia: Baliabide iraunkorrak 83,5 (52 + 31,5)	→ Ibilgetua 43
	→ Maniobra-fondoa 40,5
	Izakinak 4,5
	Bihurgarria 31,5
	Erabilgarria <u>4,5</u>

Baliabide iragankorrak 16,5 → Erabilgarria 16,5

Maniobra-fondoa handiegia dugu: bere helburua izakinak finantzatzea da. %36ko soberakina dago.

2. ekitaldia: Baliabide iraunkorrak 75 (45 + 30)	→ Ibilgetua 53
	→ Maniobra-fondoa 22
	Izakinak 7
	Bihurgarria <u>15</u>

Baliabide iragankorrak 25 (52 + 31,5)	→ Bihurgarria 10 (gainerakoa)
	→ Erabilgarria 15

Nahiz eta maniobra-fondoa jaitsi, oraindik handiegia dugu: %15 soberan daukagu.

5.- **Ondorioak:** Enpresa honek bere politika finantzarioa birplanteatu egin behar du. Bestela porrot egingo du epe laburrean.

Maniobra-fondoa izan arren (hau datu positiboa da), ez du ongi erabiltzen finantzatzeko unean. Ezin da ibilgetua epe laburrerako zorrez finantzatu, akziodunei kapitala amortizatu eta zorrak ordaindu gabe eduki.

Irtenbide gisa enpresa honek egin dezakeena honako hau da:

- 1) Ibilgeturik duen kapitala gehitu egin da urte batetik bestera, eredia bera ere gaintu egin duelarik. Baliabideak ibilgeturik edukitzeak mantenu- eta amortizazio-gastuak gehitzea dakar, mozkin aldian berean murriztuz. Horregatik ibilgetuan ustiapenerako beharrezkoa dena bakarrik edukitzea komeni da.

Beraz, produkziarako ibilgetu guzti hori beharrezkoa den ala ez aztertu behar da. Hala ez balitz ibilgetu hori saldu eta zorrak ordaindu beharko lituzke.

- 2) Gauza bera gertatzen zaio izakinekin ere. Stockak biltegian edukitzeak kostuak gehitu egiten ditu eta ustiapenerako beharrezkoak direnak bakarrik edukitzea komeni da. Gutxiago baditu produkzioa gelditu beharrean egon daiteke baina gehiegi izanez gero kostu gehigarriak eta dirua ibilgeturik edukitzea esan nahiko luke.

Bestalde egon daitezke beste arrazoi batzuk izakinak gehitzeko, hala nola, epe laburrean espero daitekeen prezio-igoera handiari aurre egiteko edukitzea.

Beraz, inolako neurririk hartu baino lehen, izakinak gehitzeko egon diren arrazoiak aztertu behar dira. Horretarako funtsezko arrazoirik ez balego izakin-maila jaisten saiatu beharko luke (gutxiago erosi, dituenak prezio baxuetan saldu, etab...)

- 3) Kapitala eta erreserbak murrizten ari dira, seguraski galeren ondorioz. Honek enpresaren bermearen galera dakar. Horri ekiditeko akziodunei kapital-ekarpena eska dakieke enpresaren egoera adierazi ondoren.

6. ARIKETA. ONDARE–ANALISIA

JATA, S.A. enpresaren balantzeak, azken bi ekitaldiei dagozkienak, ondokoak dira (milaka pta.tan):

AKTIBOA	1	2
200 Lurrak eta ondasunak	10.000	8.000
202 Edifizioak	35.000	30.000
203 Makineria	30.000	30.000
204 Garraio–elementuak	7.000	8.000
310 Produktu bukatuak	10.500	8.500
350 Lehengaiak	3.800	4.000
430 Bezeroak	15.000	17.000
440 Hainbat zordun	8.000	13.000
450 Kobratzeko merkatal efektuak	30.000	40.000
570 Kutxa	2.000	4.000
572 Bankuak k/k	<u>33.700</u>	<u>37.500</u>
	185.000	200.000

PASIBOA	1	2
100 Kapital soziala	80.000	82.000
113 Erreserba legalak	5.000	6.000
115 Estatutu–erreserbak	2.000	2.300
160 Epe luzerako hartutako maileguak	37.750	35.750
176 Epe ertainerako maileguak	10.300	10.300
280 Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	13.100	15.400
391 Izakinen baliogaleragatiko hornidurak	1.200	600
400 Hornitzaileak	6.000	9.500
410 Hainbat hartzekodun	9.150	13.150
420 Ordaintzeko merkatal efektuak	<u>20.500</u>	<u>25.000</u>
	185.000	200.000

Informazio osagarria: Kapital–gehikuntza epe luzerako maileguen kapitalizazioari dagokio. Egin ezazu doikuntza–idazpena.

Enpresa honek duen eredia hauxe da:

AKTIBOA	%	PASIBOA	%
Ibilgetua	40	Kapitala eta erreserbak	50
Izakinak	5	Epe luz. eta ertain. zorrak	35
Bihurgarria	35	Epe laburrerako zorrak	15
Erabilgarria	20		

Ondokoa eskatzen da:

- 1.– Doikuntz idazpenak idatzi eta fondoaren jatorri eta aplikazioaren egoera–
–orria kalkulatu.
- 2.– Fondoaren jatorri eta aplikazioaren egoera–orriari buruz Kontabilitate–
–Plan Orokorrek bereizten dituen hiru zatiak kalkulatu eta interpretatu:
 - a) Baliabideen aplikazio iraunkorrak
 - b) Lorturiko baliabide iraunkorrak
 - c) Zirkulatuaren aktiboko eta pasiboko aldaketak.
- 3.– Aktibo eta pasiboaren egitura eta eboluzioa kalkulatu eta interpretatu.
Ereduarekin konparazioa egin eta desbidazioak azaldu.
- 4.– Ondare–koerlazioak eta dagozkien eboluzioak kalkulatu eta interpretatu.
Maniobra–fondo edo lanerako kapitala.
- 5.– Ondorioak kalkulatu.

Ebazpidea:

- 1.– a) Doikuntz idazpenak:

Zor bat kapitalizatzeak ez dio fondoaren jatorririk adierazten enpresari.

2.000	Kapital soziala	xxx	Epe luzerako maileguak	2.000
-------	-----------------	-----	------------------------	-------

- b) Fondoaren jatorri eta aplikazioaren egoera–orria:

Kontuak	1-1 (1. balantzea)	XII/31 (2. balantzea)	Diferentziak		Doikuntzak		Aplikazioa	Jatorria
			Zor	Hartzeko	Zor	Hartzeko		
AKTIBOA								
Lurrak eta ondasun naturalak	10.000	8.000	—	2.000	—	—	—	2.000
Edifizioak eta beste zenbait eraik.	35.000	30.000	—	5.000	—	—	—	5.000
Makineria, inst. eta tresneria	30.000	30.000	—	—	—	—	—	—
Garraio-elementuak	7.000	8.000	1.000	—	—	—	1.000	—
Produktu bukatuak	10.500	8.500	—	2.000	—	—	—	2.000
Lehengaiak	3.800	4.000	200	—	—	—	200	—
Bezeroak	15.000	17.000	2.000	—	—	—	2.000	—
Hainbat zordun	8.000	13.000	5.000	—	—	—	5.000	—
Kobratzeko merkatal efektuak	30.000	40.000	10.000	—	—	—	10.000	—
Kutxa	2.000	4.000	2.000	—	—	—	2.000	—
Bankuak k/k	33.700	37.500	3.800	—	—	—	3.800	—
GUZTIRA	185.000	200.000						
PASIBOA								
Kapital soziala	80.000	82.000	—	2.000	2.000	—	—	—
Erreserba legalak	5.000	6.000	—	1.000	—	—	—	1.000
Estatutu-erreserbak	2.000	2.300	—	300	—	—	—	300
Epe luzeako hartutako maileguak	37.750	35.750	2.000	—	—	2.000	—	—
Epe ertainerako hartzekodunak	10.300	10.300	—	—	—	—	—	—
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	13.100	15.400	—	2.300	—	—	—	2.300
Izakinen balio galeragatik horidura	1.200	600	600	—	—	—	600	—
Hornitzaileak	6.000	9.500	—	3.500	—	—	—	3.500
Hainbat hartzekodun	9.150	13.150	—	4.000	—	—	—	4.000
Ordaintzeko merkatal efektuak	20.500	25.000	—	4.500	—	—	—	4.500
GUZTIRA	185.000	200.000	26.600	26.600	2.000	2.000	24.600	24.600

2.– a) Baliabideen aplikazio iraunkorrak

2. taldea: Ibilgetua	
20. Ibilgetu materiala (Erosketa)	<u>1.000</u>
Guztira	1.000

b) Lortutako baliabide iraunkorrak

1. taldea: Oinarrizko finantzaketa	
11. Erreserbak (Sorkuntza)	1.300
2. taldea: Ibilgetua	
20. Ibilgetu materiala (Salmenta)	7.000
28. Ibilgetuaren amortizazioa	<u>2.300</u>
Guztira	10.600

Zirkulatzailaren gehikuntza garbia = 10.600 – 1.000 = 9.600

c) Zirkulatzaillearen aktiboko eta pasiboko aldaketak

ZIRKULATZAILEAREN AKTIBOKO ALDAKETAK

3. taldea: Izakinak	
31. Produktu bukatuak	-2.000
35. Lehengaiak	200
4. taldea: Trafiko–eragiketagatiko hartzekodun eta zordunak	
43. Bezeroak	2.000
44. Hainbat zordun	5.000
45. Kobratzeko merkatal efektuak	10.000
5. taldea: Finantz kontuak	
57. Altxortegia	<u>5.800</u>
Guztira	21.000

ZIRKULATZAILEAREN PASIBOKO ALDAKETAK

3. taldea: Izakinak	
39. Izakinen baliogaleragatiko hornidura	-600
4. taldea: Trafiko–eragiketagatiko hartzekodun eta zordunak	
40. Hornitzaileak	3.500
41. Hainbat hartzekodun	4.000
42. Ordaintzeko merkatal efektuak	<u>4.500</u>
Guztira	11.400
Zirkulatzaillearen murriztapen garbia	<u>9.600</u>
Guztira	21.000

Interpretazioa: Ekitaldian lorturiko baliabide iraunkorrak inbertsio eta aplikazio iraunkorrak baino handiagoak izan dira. Beraz, enpresa honen egoera finantzarioa ona dela adierazten du horrek hasiera batean behintzat.

3.– Aurreneko urratsa, balantzeak ondare–masatan sailkatzean datza:

	Ekitaldiak	
AKTIBOA	1	2
Lurrak eta ondasun naturalak	10.000	8.000
Edifizioak eta beste zenbait eraikuntza	35.000	30.000
Makineria, instalazio eta tresneria	30.000	30.000
Garraio–elementuak	<u>7.000</u>	<u>8.000</u>
Guztira	82.000	76.000
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	<u>-13.100</u>	<u>-15.400</u>
IBILGETU GARBIA	<u>68.900</u>	<u>60.600</u>

Produktu bukatuak	10.500	8.500
Lehengaiak	<u>3.800</u>	<u>4.000</u>
Guztira	14.300	12.500
Izakinen balio galeragatiko hornidura	<u>-1.200</u>	<u>-600</u>
IZAKIN GARBIAK	13.100	11.900
Bezeroak	15.000	17.000
Hainbat zordun	8.000	13.000
Kobratzeko merkatal efektuak	<u>30.000</u>	<u>40.000</u>
BIHURGARRIA	53.000	70.000
Kutxa	2.000	4.000
Bankuak k/k	<u>33.700</u>	<u>37.500</u>
ERABILGARRIA	35.700	41.500
		Ekitaldiak
	1	2
PASIBOA		
Kapital soziala	80.000	82.000
Erreserba legalak	5.000	6.000
Estatutu-erreserbak	<u>2.000</u>	<u>2.300</u>
KAPITALA ETA ERRESERBAK	87.000	90.300
Epe luzerako hartutako maileguak	37.750	35.750
Epe ertainerako hartzekodunak	<u>10.300</u>	<u>10.300</u>
EPE LUZE ETA ERT. ZORRAK	48.050	46.050
Hornitzaileak	6.000	9.500
Hainbat hartzekodun	9.150	13.150
Ordaintzeko merkatal efektuak	<u>20.500</u>	<u>25.000</u>
EPE LABURRERAKO ZORRAK	35.650	47.650

a) Aktibo eta pasiboaren egitura eta eboluzioa:

	Zenbatekoa			Zenbatekoa		
	1. ekitaldian	%	ZI	2. ekitaldian	%	ZI
Ibilgetu garbia	68.900	41	100	60.600	33	87
Izakin garbiak	13.100	7	100	11.900	6,5	90
Bihurgarria	53.000	31	100	70.000	38	132
Erabilgarria	<u>35.700</u>	<u>21</u>	<u>100</u>	<u>41.500</u>	<u>22,5</u>	<u>116</u>
Guztira	170.700	100	100	184.000	100	107

PASIBOA

	Zenbatekoa			Zenbatekoa		
	1. ekitaldian	%	ZI	2. ekitaldian	%	ZI
Kapitala eta erreserbak	87.000	51	100	90.300	49	103
Epe luze eta ertainerako zorrak	48.050	28,5	100	46.050	25	97
Epe laburrerako zorrak	35.650	20,5	100	47.650	26	133
Guztira	170.700	100	100	184.000	100	107

Aktiboari dagokionez, Aktibo finkoa eta Izakinak jaitsi egin dira. Bestalde, bihurtaria eta erabilgarriak gorakada jasan dute. Datu hauekin likidezia hobetu egin dela esan dezakegu. Baina Pasiboari begiraturaz egitura nolabait mantentzen dela esan daiteke, nahiz eta epe laburrerako zorrek gorakada izan.

b) Ereduarekiko izandako desbidazioak:

AKTIBOA	Desbidazioak			PASIBOA	Desbidazioak		
	Eredua	1	2		Eredua	1	2
Ibilgetu garbia	40	1	-7	Kapitala eta erreserbak	50	1	-1
Izakin garbiak	5	2	1,5	Epe luze eta ert. zorrak	35	-6,5	-10
Bihurgarria	35	-4	3	Epe laburrerako zorrak	15	5,5	11
Erabilgarria	20	1	2,5				

Hemen agertzen dena hauxe da:

- 1) Egoera finantzarioa hobetzeko asmoz ibilgetuaren egitura desegin egin da. Hau da, ibilgetua saldu egin da likidezia hobetuz, baina hemendik aurrera bere produkzioari eusteko zailtasunak izan ditzake enpresa honek.
- 2) Pasiboan, bestalde, fondo propioen egitura mantentzen da eta kanpokoan nahikoa nahasirik daude. Honi buruz zorren epeak aldatu egin direla esan dezakegu, epe luze eta ertainerakoak epe laburrerako bihurtuz.

4.- Ondare-koerlazioak

1. ekitaldia: Baliabide iraunkorrak 79,5 (51 + 28,5)	→	Ibilgetua 41
	→	Maniobra-fondoa 38,5
		Izakinak 7
		Bihurgarria 31
		Erabilgarria <u>0,5</u>

Baliabide iragankorrak 20,5 → Erabilgarria 20,5

Maniobra-fondoa edo lanerako kapitala handiegia dugu: %31.

Produktu bukatuak	165		
Bideango produktuak	130		
Lehengaiak	372		
(-) Izakinen Baliogal. hornidura	(-) 66		

BIHURGARRIA		353
Bezeroak	140	
Kobratzeko merkatal efektuak	173	
Kobrantza dudagarriko bezeroak	22	
Akziodunak, des. gab. kapitala	34	
Harpidetu gabeko akzioak	6	
(-) Kaudimeng. hornidura	<u>(-)</u> 22	
ERABILGARRIA		48
Kutxa	10	
Bankuak k/k	<u>38</u>	
AKTIBO TOTALA		<u>1.834</u>
KAPITALA ETA ERRESERBAK		633,24
Kapital soziala	370	
Erreserba legalak	108,6	
Borondatezko erreserbak	145,6	
Gaineratikoa	<u>9,04</u>	
EPE LUZE ETA ERTAINERAKO ZORRAK		176
Epe luzerako maileguak	<u>176</u>	
EPE LABURRERAKO ZORRAK		1.024,76
Hornitzaileak	441	
Ordaintzeko merkatal efektuak	80	
Hazienda Publikoa kont. fisk. hart.	261,36	
Hartzekodun ez-komert. dib. akt.	90,4	
Epe laburrerako maileguak	<u>152</u>	
PASIBO TOTALA		<u>1.834</u>

a) Finantz egitura

FINANTZAKETA-FONDO IRAUNKORRAK

• Propioak		
Kapital despoltsatua	330	
(370-6-34)		
Erreserbak	<u>263,24</u>	
	593,24	
• Kanpokoak		
Epe luzerako maileguak	<u>176</u>	
	769,24	

IBILGETUA

• Materiala	787
• Bideangoa	25
• Alegiazkoa	<u>20</u>
	832

Maniobra-fondoa = $769,24 - 832 = (-) 62,76$ Ez dago.

Beste era batera:

AKTIBO ZIRKULATZAILEA

Izakinak	601
Bihurgarria	313
Erabilgarria	<u>48</u>
	962

PASIBO ZIRKULATZAILEA

Epe laburrerako zorrak 1.024,76

Maniobra-fondoa = $962 - 1.024,76 = (-) 62,76$ Ez dago.

b) Kapital zirkulatzaile minimo edo ideala:

1. Aktibo zirkulatzaile minimoa

$$\text{Lehengaien batezbesteko stocka} = \frac{\text{Lehengaien kontsumoa}}{\text{Lehengaien errotazioa}} = \frac{991}{365} \times 90 = 244$$

$$\text{Bideango prod. batezbes. stocka} = \frac{\text{Produkzio-kostua}}{\text{Bideango prod. errot.}} = \frac{2.427}{365} \times 15 = 99$$

$$\text{Produk. bukatuen batezbes. stocka} = \frac{\text{Salmenta-kostua}}{\text{Produk. bukatuen errot.}} = \frac{2.262}{365} \times 20 = 123$$

$$\text{Bezeroen batezbesteko stocka} = \frac{\text{Salmentak}}{\text{Bezeroen errotazioa}} = \frac{2.755}{365} \times 120 = \underline{905}$$

1.371

2. Pasibo zirkulatzaile minimoa

$$\text{Hornitz. batezbesteko stocka} = \frac{\text{Erosketak}}{\text{Hornitzaileen errotazioa}} = \frac{1.101}{365} \times 120 = \underline{361}$$

Kapital zirkulatzaile minimoa **1.010**

c) Finantzaketaren oinarrizko koefizientea:

$$F.O.K. = \frac{\text{Finantzaketa-fondo iraunkorrak}}{\text{Inbertsio finkoak} + \text{K. zirk. minimoa}} = \frac{769,24}{832 + 1.010} = 0,41$$

Finantzaketaren defizita suposatzen du indize honek. Epe laburrerako zorren bidez ibilgeturik duen pta. bakoitzetik, 0,59 pta. finantzatzen du.

d) Finantz oreka

A	=	P
AKTIBO FINKOA %45		PASIBO FINKOA %44
AKTIBO ZIRKULA- TZAILEA %55		PASIBO ZIRKULA- TZAILEA %56

Ez dago maniobra-fondorik.

e) Finantz Egoera:

Ratioak

$$\text{Epe laburrerako likidezia} = \frac{\text{Bihurgarria} + \text{Erabilgarria}}{\text{Epe laburrerako zorrak}} = \frac{313 + 48}{1.024,76} = 0,35$$

Epe laburrean likidezi arazo handiak izan ditzake.

$$\text{Kaudimena edo ord.-etendur. tarte} = \frac{\text{Akt. zirk.}}{\text{Pas. zirk.}} = \frac{962}{1.024,76} = 0,93$$

Epe ertainera zorrak ezin ditu ordaindu.

$$\text{Bermea edo porroterako tarte} = \frac{\text{Aktibo erreala}}{\text{Zorrak}} = \frac{832 + 962 - 20}{1.794} = \frac{1.774}{1.794} = 0,98$$

Ez du nahikoa ondare zorrak ordaintzeko. Porrot egiteko bidean aurkitzen da.

$$\text{Zorpetze edo finantz autonomia} = \frac{\text{Zorrak}}{\text{Fondo propioak}} = \frac{1.794}{593,24} = 3$$

Zeharo zorpeturik dago; hartzekodunen eskuetan hain zuzen.

f) Batezbesteko heltze-aroa

$$\text{Lehengaien errotazioa} = \frac{\text{Kontsumoa}}{\text{Leheng. batezbesteko stocka}} = \frac{991}{\frac{262 + 372}{2}} = 3,1$$

$$\text{Lehengaien batezbesteko errotazio-epa} = \frac{365}{3,1} = 117 \text{ egun}$$

$$\text{Bideango prod. errot.} = \frac{\text{Produkzio-kostua}}{\text{Bid. prod. batezb. stocka}} = \frac{2.427}{\frac{84 + 130}{2}} = 22,6$$

$$\text{Bid. prod. batezbesteko errotazio-epa} = \frac{365}{22,6} = 16 \text{ egun.}$$

$$\text{P. bukatuen errot.} = \frac{\text{Salmenta-kostua}}{\text{P. buk. batezbest. stocka}} = \frac{2.262}{\frac{128 + 165}{2}} = 15,4$$

$$\text{P. bukatuen batezbesteko errotazio-epa} = \frac{365}{15,4} = 23 \text{ egun}$$

$$\text{Kobrantzen errot.} = \frac{\text{Salmentak}}{\text{Bezero eta k.m.e. bat. stocka}} = \frac{2.755}{\frac{268 + 313}{2}} = 9,4$$

$$\text{Kobrantza batezbesteko epea} = \frac{365}{9,4} = \underline{38 \text{ egun}}$$

(+ 194 egun)

$$\text{Orda.-errot.} = \frac{\text{Erosketak}}{\text{Hornit. eta o.m.e. batezbest. stocka}} = \frac{1.101}{\frac{377 + 521}{2}} = 2,4$$

$$\text{Ordainketa batezb. epea} = \frac{365}{2,4} = \underline{(-) 152 \text{ egun}}$$

Batezbesteko Heltze-Aroa 42 egun

Konparaketa:

Kapital Zirkulatzaila Errealak \Leftrightarrow Kapital Zirkulatzaila Minimoa

	Zenbatekoak			Egunak		
	Minimoa Diferentzia	Errealak	Diferentzia	Minimoa	Errealak	
Bezeroak eta k.m.ef.	988	313	(-)675	120	38	(-)82
Lehengaiak	265	372	107	90	126	36
Bideango produktuak	123	130	7	15	16	1
Produktu bukatuak	143	165	22	20	23	3
Beste zenbait aktibo	<u> </u>	<u> 48</u>	<u> 48</u>	<u> </u>	<u> </u>	<u> </u>
	1.519	1.028	(-)491	245	203	(-)42

Ken:

Hornit. eta o. m. ef.	411	521	110	120	152	32
Beste zenbait aktibo	<u> </u>	<u> 503,76</u>	<u> 503,76</u>	<u> </u>	<u> </u>	<u> </u>
	<u> 411</u>	<u>1.024,76</u>	<u> 613,76</u>	<u> 120</u>	<u> 152</u>	<u> 32</u>
	1.108	3,24	(-)1.104,76	125	51	(-)74

Oharrak:

- 1.- Enpresa honek produktu bukatuen stock ideala baino handiagoa du. Hala eta guztiz ere, bere produkzioa moteldu beharrean areagotu egin du, baina salmentak ez dira igotzen.
- 2.- Erosketak murriztu ordezkari gehitu egin ditu.

13. ARIKETA. ERRENTAGARRITASUNA

1. Enpresa batean, kostu proportzionalak salmenten %65 dira eta egitura–kargak 200.000 pta.koak dira. Kalkula ezazu:
 - a) Ustiapenaren emaitza 500.000, 600.000, 700.000 eta 800.000 pta.ko salmentetarako.
 - b) Errentagarritasun–ataria eta dagokion adierazpen grafikoa.
 - c) Enpresa honek salmenta–prezioa %20 jaisten badu, 1.200.000 pta.ko salmenta garbiak lor ditzake. Kalkula ezazu emaitza garbia eta errentagarritasun–atari berria, kostu proportzionalak salmenta gordinen %65ean mantentzen badira.
 - d) Baldintza hauetan (aurreko kasuan), zenbat saldu beharko luke 150.000 pta. irabazi ahal izateko, egitura–kargak 50.000 pta. igotzen badira?
2. Beste enpresa batek ondorengo produktuak fabrikatu eta saltzen ditu:

	"A"	"B"	"C"
Salmentak	200.000	150.000	300.000
Kostu proportzionalak	80.000	75.000	180.000
Egitura–kargak 100.000 pta.			

- a) Adierazi produktu bakoitzaren mozkina balio absolutu eta erlatiboetan.
- b) Enpresariak, irabazi–portzentaiarik handiena duen produktua bultzatzen du. Salmentak %25 igoko direla aurriztatu da. Kostu proportzionala %10 igoko dela eta 15.000 pta.ko publizitate–kanpaina ere bai. Guzti honekin, "C" produktua zerbait baztertu egin da, dagozkion salmentak 260.000 pta.ra jaitsi direlarik. "B" produktua, bestalde, berdin mantendu da. Estrategia hau ona izan den ala ez jakin nahi da eta emaitzak nolako eragina duen ere bai.
- c) Errentagarritasun–ataria kalkulatu hasierako datuekin. (Adierazpen grafikoa egin)

Ebazpidea:

1.– a)	Salmentak	500.000	600.000	700.000	800.000
	Kostu propor. %65	<u>–325.000</u>	<u>–390.000</u>	<u>–455.000</u>	<u>–520.000</u>
	Merkatal marjina	175.000	210.000	245.000	280.000
	Egitura–kargak	<u>–200.000</u>	<u>–200.000</u>	<u>–200.000</u>	<u>–200.000</u>
	Emaitza garbia	–25.000	10.000	45.000	80.000

- b) Enpresa batek errentagarritasun-ataria salmentek kostu guztiak estaltzen dituztenean, hau da, marjinak kostu finkoak adinakoak direnean lortzen du.

$$x - x \frac{65}{100} - 200.000 = 0$$


$$0,35 x = 200.000$$

$$x = 571.428,57 \text{ pta.}$$

Salmentak 571.428,57 pta.koak direnean egongo da errentagarritasun-atarian; hots, ez du ez mozkinik ez galerarik izango.

Egiaztapena:	Salmenta minimoak	571.428,57
	Kostu proportzionalak %65	<u>371.428,57</u>
	Merkatal marjina	200.000
	Egitura-kargak	<u>-200.000</u>
	Emaizta garbia	0

Grafikoki:



- c) Salmentak %20 murriztu eta kostu proportzionalak mantentzen badira, kostu proportzionalen portzentaia aldatu egingo da, ondokoa izango delarik: $\frac{65}{80} = 0,8125$ pta./unit.

Salmentak	1.200.000
Kostu porportzionalak %81,25	<u>-975.000</u>
Merkatal marjina	225.000
Egitura-kargak	<u>-200.000</u>
Emitza garbia	25.000

Eta errentagarritasun-atari berria:

$$x - x \cdot \frac{81,25}{100} - 200.000 = 0$$

$$0,1875 x = 200.000$$

$$x = \mathbf{1.066.666,67 \text{ pta.}}$$

Egiaztapena: Salmentak	1.066.666,67
Kostu proportzionalak %81,25	<u>-866.666,67</u>
Merkatal marjina	200.000
Egitura-kargak	<u>-200.000</u>
Emitza garbia	0

$$d) x - x \cdot \frac{81,25}{100} - (200.000 + 50.000) = 150.000$$

$$0,1875 x = 400.000$$

$$x = \mathbf{2.133.333,33 \text{ pta.}}$$

Egiaztapena: Salmentak	2.133.333,33
Kostu proportzionalak %81,25	<u>1.733.333,33</u>
Merkatal marjina	400.000
Egitura-kargak	<u>-250.000</u>
Mozkina	150.000

2.- a)	"A"	%	"B"	%	"C"	%	Guztira
Salmentak	200.000	100	150.000	100	300.000	100	650.000
Kostu proportz.	80.000	40	75.000	50	180.000	60	335.000
Estaldura-marj.	120.000	60	75.000	50	120.000	40	315.000
Egitura-kargak							<u>-100.000</u>
Ustiapen-mozk.							215.000

"A" eta "C" produktuak mozkin berdina ematen dute balore absolututan, baina ez, ordea, balore erlatiboetan. "A" produktuak indar handiagoa du (%60).

	"A"	%	"B"	%	"C"	%	Guztira
Salmentak	250.000	100	150.000	100	260.000	100	660.000
Kostu proportz.	110.000	44	75.000	50	156.000	60	341.000
Estal.-marj.	140.000	56	75.000	50	104.000	40	319.000
Egit.-kargak zuz.	-15.000		—		—		-15.000
Estal.-marj. garb.	125.000		75.000		104.000		304.000
Eg.-kargak orok.							-100.000
Ustiap.-mozk.							204.000


"A" produktuak ematen duen mozkina 5.000 pta. igo da, baina "C" produktuaren bidez lortutakoa 16.000 pta. murriztu da. Horregatik, emaitza totala 11.000 pta. jeitsi da.

c) Kostu proportzionalak = $\frac{335.000}{650.000} = 0,5154$ pta./unit.

$$x - x \cdot \frac{51,54}{100} - 100.000 = 0$$

$$0,48 \cdot 46 x = 100.000$$

$$x = \mathbf{206.305} \text{ pta.}$$



14. ARIKETA. ANALISI EKONOMIKOA

- 1) OIHARBIDE S.A. enpresaren egoera-balantzea, mozkinen gaineko zerga kendu ondoren, ondokoa dugu: (milaka pta.tan)

AKTIBOA

IBILGETUA		85.000
205 Mobiliario eta ekipamenduak	120.000	
280 Ibilgetu materialaren amort. metatua	-35.000	
IZAKINAK		95.000
300 Salgaiak	95.000	
ZORDUNAK		40.000
430 Bezeroak	40.000	
FINANTZ-KONTUAK		50.000
580 Kutxa	50.000	
		<u>270.000</u>

PASIBOA

KAPITALA ETA ERRESERBAK		222.000
100 Kapital soziala	102.000	
116 Erreserbak	120.000	
EPE LUZERAKO ZORRAK		9.000
160 Epe luzerako maileguak	9.000	
EPE LABURRERAKO ZORRAK		28.950
400 Hornitzaileak	24.000	
475 Hazienda Publikoa kont. fisk. hartz.	4.950	
EMAITZAK		10.050
890 Galdu-Irabaziak	10.050	
		<u>270.000</u>

Ustiapen-kontuak ondoko datuak aurkezten ditu:

ZOR		HARTZEKO	
Salgai-erosketak	82.000	Salgai-salmentak	154.000
Soldata eta alokairuak	18.000		
Enpres. karg. Gizarte-Seg.	4.000		
Ibilgetu mat. amortizazioa	<u>35.000</u>		
	154.000		<u>154.000</u>

Kalkula ezazu:

- a) Errentagarritasun-ataria
- b) Errentagarritasun-atariaren adierazpen grafikoa
- c) Enpresaren errentagarritasun gordin eta garbiak:
 - a) Kapital propioenak (Errentagarritasun finantzarioa)
 - b) Kapital totalenak (Errentagarritasun ekonomikoa)
 - c) Salmenten marjina eta errotazioa
- 2) "LUMOSA" enpresak produktu bat saltzen du %52-ko kostu proportzionalak dituelarik. Dagozkion egitura-kargak 50.000 pta. direla jakinez, kalkula eta adieraz ezazu errentagarritasun-ataria.
- 3) Enpresa batek, ekitaldi batean 500.000 pta.ko salmenta garbiak izan ditu. Ekitaldiko kostuak 450.000 pta.koak dira eta kostu proportzionalak 280.000 pta.koak. Kalkula ezazu enpresa horren errentagarritasun-ataria.

Ebazpidea:

- 1.- a) Errentagarritasun-ataria

$$\text{Salmentak} - \text{Kostu proportzionalak} - \text{Egitura-kargak} = 0$$

Kostu proportzionalen portzentaia kalkulatu behar dugu:

Salgai-erosketak	82.000
Soldata eta alokairuak	18.000
E. K. Gizarte-Segurantzak	<u>4.000</u>
	104.000

$$\text{Kostu proport. portzentaia: } \frac{104.000}{154.000} = 0,6753 = \%67,53$$


$$x - x \frac{67,53}{100} - 35.000 = 0$$

$$0,3247 x = 35.000$$

$$x = 107.791$$

Egiaztapena:	Salmentak	107.791
	Kostu proportzionalak %67,53	<u>-72.791</u>
	Marjina	35.000
	Egitura-kargak	<u>-35.000</u>
	Emitza garbia	0

b) Adierazpen grafikoa:



$$\begin{aligned}
 \text{c) Errentagarritasun finantzarioa (E_f)} &= \frac{\text{Mozkin totalak}}{\text{Kapital propioak}} \times 100 = \\
 &= \frac{10.050}{222.000} \times 100 = \%4,52
 \end{aligned}$$

Enpresak berak ezarritako 100 pezetatik 104, 52 pezeta lortzen ditu. Hau da 100 pta.tik 4,52ko mozkina.

$$\begin{aligned}
 \text{Errentagarritasun ekonomikoa (E_e)} &= \frac{\text{Mozkin totalak}}{\text{Kapital totalak}} \times 100 = \\
 &= \frac{10.050}{270.000} \times 100 = \%3,73
 \end{aligned}$$

Kapital guztietatik inbertitutako 100 pta.rekin 103,73 pta. lortzen ditu. Hau da, 100 pta.tik 3,73 pta.ko mozkina

Salmenten marjina eta errotazioa:

$$E_e = \frac{\text{Mozkina}}{\text{Aktibo totala}} \times 100 = \frac{M}{A} \times 100 = \frac{M}{S} \times \frac{S}{A} \times 100$$

$$E_e = \frac{10.050}{270.000} \times 100 = \frac{10.050}{154.000} \times \frac{154.000}{270.000} \times 100$$

$$\text{Marjina} = \frac{10.050}{154.000} \times 100 = \%6,52$$

Saldutako 100 pta.tik 106,52 pta. lortzen ari da. Hobetzen den neurrian enpresaren errentagarritasun ekonomikoa gehituko da. Nola hobe daiteke:

- 1.- Kostu unitarioak mantenduz salmenta-prezio unitarioa igota.
- 2.- Salmenta-prezioa finko mantenduz kostu unitarioak murriztuta.

$$\text{Errotazioa} = \frac{154.000}{270.000} = 0,56$$

Enpresak duen aktiboarekin errotazioak hobea izan beharko luke. Hau da, izakinen zirkulazio-abiadura txikia du eta prezio-politikoarazionalagoa aplikatu beharko du salmentak hobe ditzan.

2.- Errentagarritasun-ataria:


$$\text{Salmentak} - \text{Kostu proportzionalak} - \text{Egitura-kargak} = 0$$

$$x - x \cdot \frac{52}{100} - 50.000 = 0$$

$$0,48 x = 50.000$$

$$x = 104.166$$

Egiaztapena:	Salmentak	104.166
	Kostu proportzionalak %52	<u>-54.166</u>
	Marjina	50.000
	Egitura-kargak	<u>-50.000</u>
	Emitza garbia	0



3.- Kostu proportzionalen protzentaia unitarioa = $\frac{280.000}{500.000} = 0,56 = \%56$

Salmentak – Kostu proportzionalak – Egitura-kargak = 0

$$x - x \cdot \frac{56}{100} - 170.000 = 0$$

$$0,44 x = 170.000$$

$$x = \mathbf{386.363}$$

15. ARIKETA. ANALISI EKONOMIKOA

"ANAIK" enpresako sail baten USTIAPEN-KONTUA hauxe dugu:

ZOR		HARTZEKO	
Lehengaiak (kontsumoa)	820.000	Salmenta garbiak	5.000.000
Pertsonal-gastuak	1.430.000		
Hornidurak	250.000		
Salmenten garraio eta pleitak	40.000		
Bitarteko agente indep. ord.	300.000		
Egitura-kargak	1.700.000		
Mozkina	<u>460.000</u>		
	5.000.000		<u>5.000.000</u>

- Emaitza-kontuaren azterketa egin ezazu, marjina industrial, merkatal marjina eta azken emaitza kalkulatu.
- Kalkula ezazu errentagarritasun-ataria eta grafikoki adierazi.

Ebazpidea:

a) SALMENTA GARBIAK		<u>5.000.000</u>
Lehengai-kontsumoa	820.000	
Pertsonal-gastuak	1.430.000	
Hornidurak	<u>250.000</u>	
SALMENTA-KOSTUA		<u>-2.500.000</u>
MARJINA INDUSTRIALA		<u>2.500.000</u>
Salmenten garraio eta pleitak	40.000	
Bitarteko agente independenteei ordainketak	<u>300.000</u>	
MERKATAL KOSTUA		<u>-340.000</u>
MERKATAL MARJINA		2.160.000
Egitura-kargak	<u>-1.700.000</u>	
EMAITZA		460.000

- Errentagarritasun-ataria

$$\text{Salmentak} - \text{Kostu proportzionalak} - \text{Egitura-kargak} = 0$$

Kostu proportzionalen portzentaia kalkulatu behar dugu:

$$1) \text{ Salm.-kost. portz.: } \frac{\text{Salmenta-kostua}}{\text{Salmenta garbiak}} = \frac{2.500.000}{5.000.000} = 0,5 \Rightarrow \%50$$


$$2) \text{ Mer. kos. por.} = \frac{\text{Merktal-kostua}}{\text{Salmenta garbiak}} = \frac{340.000}{5.000.000} = 0,068 \Rightarrow \%6,8$$

$$x - x \%56,8 - 1.700.000 = 0$$

$$\%43,2 x = 1.700.000$$

$$0,432 x = 1.700.000$$

$$x = \mathbf{3.935.185}$$



16. ARIKETA. ANALISI EKONOMIKOA

Enpresa baten balantzeak hauek dira (milaka pta.tan):

AKTIBOA	1. ekitaldia	2. ekitaldia
Edifizioak	56.960	96.905
Makineria	85.215	155.705
Mobiliarioa	6.125	13.290
Ibilgetu materialaren amot. metatua	-57.690	-86.210
Bideango ibilgetua	16.530	30.410
Lehengaiak	4.200	3.200
Bideango produktuak	9.320	8.000
Produktu bukatuak	8.280	4.800
Bezeroak	26.000	21.875
Hainbat zordun	200	125
Bankuak	3.000	200
Kutxa	100	200
	<u>158.240</u>	<u>248.500</u>
PASIBOA		
Kapitala	75.000	75.000
Erreserba legala	9.000	14.000
Borondatezko erreserbak	6.000	11.000
Epe luzerako maileguak	28.200	25.000
Hornitzaileak	18.280	54.300
Epe laburrerako maileguak	16.720	49.970
Epe laburrerako hartzekodunak	840	1.230
Galdu-Irabaziak	4.200	18.000
	<u>158.240</u>	<u>248.500</u>

Bestalde, emaitza-kontuek honako informazioa adierazten dute:

	1. ekitaldia	2. ekitaldia
<u>Salmentak</u>	<u>42.000</u>	<u>150.000</u>
Lehengaiak	8.400	30.000
Zuzeneko eskulana	21.000	65.000
<u>-Salmenta-kostua</u>	<u>-29.400</u>	<u>-95.000</u>
Marjina gordina	12.600	55.000
<u>- Administrazio- eta Merkatal gastuak</u>	<u>-5.700</u>	<u>-32.500</u>
Mozkin operatiboa	6.900	22.500
<u>- Gastu finantzarioak</u>	<u>-2.700</u>	<u>-4.500</u>
Mozkin garbia zerga aurretik	4.200	18.000
<u>- Sozietateen gaineko zerga</u>	<u>-1.260</u>	<u>-5.400</u>
Mozkin garbia zerga ondoren	2.940	12.600

Ondokoa eskatzen da:

- 1.- Enpresa honen errentagarritasun-indizeak atera.
- 2.- Errentagarritasun-ataria kalkulatu.

Oharra: Kalkuluak bi ekitaldiei aplikatu eta eboluzioa ere aztertu.

Ebazpidea:

- 1.- Errentagarritasun-indizeak

	1. ekitaldia	2. ekitaldia
• $E_f = \frac{\text{Mozk.}}{\text{Kap. prop.}} \times 100$	$\frac{2.940}{90.000} \times 100 = \%3,27$	$\frac{12.600}{100.000} \times 100 = \%12,6$
• $E_e = \frac{\text{Mozk.}}{\text{Kap. tot.}} \times 100$	$\frac{6.900}{158.240} \times 100 = \%4,36$	$\frac{22.500}{248.500} \times 100 = \%9,05$
• $\text{Sal. mar.} = \frac{\text{Mozk.}}{\text{Salm.}} \times 100$	$\frac{6.900}{42.000} \times 100 = \%16,42$	$\frac{22.500}{150.000} \times 100 = \%15$
• $\text{Errotazioa} = \frac{\text{Salm.}}{\text{Ak. tot.}}$	$\frac{42.000}{158.240} = 0,26$	$\frac{150.000}{248.500} = 0,60$

- 2.- Errentagarritasun-ataria

	1. ekitaldia	2. ekitaldia
Kostu propor. portzen. =	$\frac{29.400}{42.000} = 0,7 \Rightarrow \%70$	$\frac{95.000}{150.000} = 0,63 \Rightarrow \%63$

1. ekitaldian:

Salmentak – Kostu proportzionalak – Egitura-kargak = 0

$$x - x \cdot \frac{70}{100} - (5.700 + 2.700) = 0$$

$$0,30 x = 8.400$$

$$x = \mathbf{28.000}$$

2. ekitaldian:

Salmentak – Kostu proportzionalak – Egitura–kargak = 0

$$x - x \cdot \frac{63}{100} - (32.500 + 4.500) = 0$$

$$0,37 x = 37.000$$

$$x = \mathbf{100.000}$$

Kapital propioen errentagarritasuna edo errentagarritasun finantzarioak igoera handia izan du: %3,27tik %12,60raino. Igoera honetan eragin duena inbertitutako kapital totalen errentagarritasunaren hobekuntza izan da; bikoiztu egin bait da. %4,36tik %9,05eraino.

Errentagarritasun ekonomikoaren hobekuntza, enpresaren aktibo totalaren gestio hobea egin delako izan da; beren errotazioak 0,26tik 0,60raino pasatu bait dira.

Bestalde, enpresaren errentagarritasun ekonomikoan eragiten dion beste faktorea, marjina hain zuzen, murriztu egin da %16,42tik %15eraino pasatuz. Beharrezkoa izango da marjinaren murrizketa honen estudio sakona egitea (kostuaren gehikuntza edo salmenta–prezioaren murriztapena) neurriak hartu ahal izateko.

Ikusten denez, ekonomikoki enpresaren egoera hobetu egin da. Hobekuntza hau aktibo totalaren gestioa egokia eta erabili den finantzaketa ere positiboa izan direlako gertatu da.

17. ARIKETA. ANALISI EKONOMIKOA

Enpresa baten balantzeak ondoko hauek dira: (milaka pta.tan).

AKTIBOA	1. ekitaldia	2. ekitaldia
Edifizioak	30.000	40.000
Makineria	50.000	70.000
Mobiliarioa	55.000	6.000
Ibilgetu materialaren amort. metatua	-27.000	-39.000
Lehengaiak	3.500	4.500
Bideango produktuak	8.000	10.000
Produktu bukatuak	12.000	15.000
Bezeroak	13.000	17.500
Bankuak	400	900
Kutxa	100	100
	<u>100.000</u>	<u>125.000</u>
PASIBOA		
Kapitala	15.000	45.000
Erreserba legalak	1.000	6.500
Borondatezko erreserbak	4.000	8.500
Epe luzerako maileguak	10.000	20.000
Hornitzaileak	15.000	16.000
Epe laburrerako maileguak	40.000	10.000
Epe laburrerako hartzekodunak	4.500	3.600
Galdu-Irabaziak	10.500	15.400
	<u>100.000</u>	<u>125.000</u>

Bestalde, emaitza-kontuak honako hauek ditugu:

	1. ekitaldia	2. ekitaldia
<u>Salmentak</u>	<u>100.000</u>	<u>125.000</u>
Lehengaiak	40.000	50.000
Zuzeneko eskulana	36.000	45.000
<u>-Salmenta-kostua</u>	<u>-76.000</u>	<u>-95.000</u>
Marjina gordina	24.000	30.000
<u>- Administrazio- eta Merkatal gastuak</u>	<u>-10.000</u>	<u>-12.500</u>
Mozkin operatiboa	14.000	17.500
<u>- Gastu finantzarioak</u>	<u>-3.500</u>	<u>-2.100</u>
Mozkin garbia zerga aurretik	10.500	15.400
<u>- Sozietateen gaineko zerga</u>	<u>-3.150</u>	<u>-4.620</u>
Mozkin garbia zerga ondoren	7.350	10.780

Akziodunei mozkin garbiaren %40 ematea erabaki da. Kapitalaren errentei buruzko zerga %18 da. Adierazi:

- 1.- Errentagarritasun-indizeak bi ekitaldientzat.
- 2.- Errentagarritasun-atarien adierazpen grafikoak.
- 3.- Ondorioak.

Ebazpidea:

- 1.- Errentagarritasun-indizeak

	1. ekitaldia	2. ekitaldia
• $E_f = \frac{\text{Moz.}}{\text{Kap. pr.}} \times 100$	$\frac{7.350}{20.000} \times 100 = \%36,75$	$\frac{10.780}{60.000} \times 100 = \%17,96$
• $E_e = \frac{\text{Moz.}}{\text{Kap. tot.}} \times 100$	$\frac{14.000}{100.000} \times 100 = \%14$	$\frac{17.500}{125.000} \times 100 = \%14$
• $\text{Sal. mar.} = \frac{\text{Moz.}}{\text{Sal.}} \times 100$	$\frac{14.000}{100.000} \times 100 = \%14$	$\frac{17.500}{125.000} \times 100 = \%14$
• $\text{Errotazioa} = \frac{\text{Sal.}}{\text{Ak. tot.}}$	$\frac{100.000}{100.000} = 1$	$\frac{125.000}{125.000} = 1$
• Akziodunen errentagarrit.	$= \frac{\text{Dibidenduak}}{\text{Despoltsatutako kapitala} + \text{Akzio-jaulkipen saria}} \times 100 =$	
	$= \frac{10.500 \times \frac{40}{100}}{15.000} \times 100 = \%28$	$= \frac{15.400 \times \frac{40}{100}}{45.000} \times 100 = \%13,68$

- 2.- Errentagarritasun-ataria

	1. ekitaldia	2. ekitaldia
Kostu propor. portzen.	$= \frac{76.000}{100.000} \times 100 = \%76$	$= \frac{95.000}{125.000} \times 100 = \%76$

1. ekitaldian:

Salmentak – Kostu proportzionalak – Egitura-kargak = 0

$$x - x \cdot \frac{76}{100} - (10.000 + 3.500) = 0$$

$$0,24 x = 13.500$$

$$x = \mathbf{56.250}$$

2. ekitaldian:

$$\text{Salmentak} - \text{Kostu proportzionalak} - \text{Egitura-kargak} = 0$$

$$x - x \cdot \frac{76}{100} - (12.500 + 2.100) = 0$$

$$0,24 x = 14.600$$

$$x = \mathbf{60.833}$$

Kapital propioen errendagarritasunak jaitsiera nabaria jasan du: %36,75etik %17,96raino. Datu hauekin bat dator akziodunen errendagarritasunaren jaitsiera: %28tik %13,68raino. Bestalde, kapital guztien errendagarritasuna mantendu egin da: %14ean. Beraz, kapital propioen errendagarritasunaren jaitsiera erabilitako finantzaketa erari dagokio.

Enpresak kapital guztiei ordaintzeko ahalmena mantentzen du, baina ez kapital propioei dagokiena.

18. ARIKETA. ANALISI EKONOMIKOA

C.O.M.A.S.A. enpresaren egoera-balantzeak, abenduaren 31n ondokoak dira (milaka pta.tan):

AKTIBOA	1986	1987	1988
Ibilgetua	535.000	560.000	830.000
Izakinak	620.000	870.000	895.000
Zordunak	1.050.000	1.120.000	1.190.000
Finantz kontuak	<u>240.000</u>	<u>435.000</u>	<u>490.000</u>
Guztira	2.445.000	2.985.000	3.405.000
PASIBOA			
Kapitala eta erreserbak	840.000	860.000	1.180.000
Epe luze eta ertainerako zorrak	—	120.000	930.000
Epe laburrerako zorrak	1.547.000	1.897.000	1.177.500
Emaitzak	<u>58.000</u>	<u>108.000</u>	<u>117.500</u>
Guztira	2.445.000	2.985.000	3.405.000

(Kapitala 300.000n mantentzen da 3 urteetan).

Enpresa honetako emaitzak honakoak izan dira (milaka pta.tan):

	1986	1987	1988
Salmentak	2.590.000	3.660.000	3.900.000
Salmenta-itzulketak	<u>129.000</u>	<u>182.000</u>	<u>195.000</u>
Salmenta garbiak	2.461.000	3.478.000	3.705.000
Salmenta-kostua	2.115.000	3.000.000	3.132.000
Merkatal kostua	29.000	38.000	40.500
Gastu finantzarioak	200.000	265.000	340.000
Amortizazioak	9.000	12.000	15.000
Egitura-kargak	<u>50.000</u>	<u>55.000</u>	<u>60.000</u>
Emaitza	58.000	108.000	117.500

Mozkin-banaketa: — %36 Haziendarentzat
— %30 Akziodunentzat (K.E.Z. %24)
— %34 Erreserbak

Ondokoa eskatzen da:

Egin enpresa honen analisi ekonomikoa eta ondorioak adierazi.

Ebazpidea:

1.- Errentagarritasun-indizeak

	1986	1987	1988
• Errentag.-finantz. = $E_f = \frac{\text{Mozkinak}}{\text{Kapital propioak}} \times 100$	$\frac{58.000 - 58.000 \times \frac{35}{100}}{840.000} \times 100 = \%4,48$	$\frac{108.000 - 108.000 \times \frac{35}{100}}{860.000} \times 100 = \%8,16$	$\frac{117.500 - 117.500 \times \frac{35}{100}}{1.180.000} \times 100 = \%6,47$
• Errentag. ekon. = $E_e = \frac{\text{Mozkinak}}{\text{Kapital totalak}} \times 100$	$\frac{(58.000 + 200.000)}{2.445.000} \times 100 = \%10,55$	$\frac{(108.000 + 265.000)}{2.985.000} \times 100 = \%12,49$	$\frac{(117.500 + 340.000)}{3.405.000} \times 100 = \%13,43$
• Salmenten marjina = $\frac{\text{Mozkinak}}{\text{Salmentak}} \times 100$	$\frac{258.000}{2.461.000} \times 100 = \%10,4$	$\frac{373.000}{3.478.000} \times 100 = \%10,7$	$\frac{457.500}{3.705.000} \times 100 = \%12,3$
• Errotazioa = $\frac{\text{Salmentak}}{\text{Aktibo totala}}$	$\frac{2.461.000}{2.445.000} = 1,006$	$\frac{3.478.000}{2.985.000} = 1,16$	$\frac{3.705.000}{3.405.000} = 1,08$
• Akziod. errentag. = $\frac{\text{Dibidenduak}}{\text{Despolts. kapit. + Jaukipen-saria}} \times 100$	$\frac{58.000 \times \frac{30}{100}}{300.000} \times 100 = \%5,8$	$\frac{108.000 \times \frac{30}{100}}{300.000} \times 100 = \%10,8$	$\frac{117.500 \times \frac{30}{100}}{300.000} \times 100 = \%11,7$

2.- Errentagarritasun-ataria

	1986	1987	1988
Kostu proporzionalen portzentzia:	$\frac{(2.115.000 + 29.000)}{2.461.000} \times 100 = \%87,1$	$\frac{(3.000.000 + 38.000)}{3.478.000} \times 100 = \%87,3$	$\frac{(3.132.000 + 40.500)}{3.705.000} \times 100 = \%85,6$

1986:

$$\begin{aligned} \text{Salmentak} - \text{Kostu proportzion.} - \text{Egitura-kargak} &= 0 \\ x - x \cdot \frac{87,1}{100} - (200.000+9.000+50.000) &= 0 \\ 0,129 x = 259.000 &\Rightarrow x = \mathbf{2.007.751} \end{aligned}$$

1987:

$$\begin{aligned} \text{Salmentak} - \text{Kostu proportzion.} - \text{Egitura-kargak} &= 0 \\ x - x \cdot \frac{87,3}{100} - (265.000+12.000+55.000) &= 0 \\ 0,127 x = 332.000 &\Rightarrow x = \mathbf{2.614.173} \end{aligned}$$

1988:

$$\begin{aligned} \text{Salmentak} - \text{Kostu proportzion.} - \text{Egitura-kargak} &= 0 \\ x - x \cdot \frac{85,6}{100} - (340.000+15.000+60.000) &= 0 \\ 0,144 x = 415.000 &\Rightarrow x = \mathbf{2.881.944} \end{aligned}$$

Enpresa, 1989.etik 1988.eko epean ekonomikoki hobetu egin dela esan behar da, nahiz eta azken urtean (1988an hain zuzen), kapital propioen eta akziodunen errentagarritasuna jaitsi aurreko urtearekin konparatuz. Garbi dago kapital gehiago erabili dituela enpresa honek, baina kanpotik etorri dira eta, horregatik, kanpoko kapital horien kostua lorturiko mozkinen portzentaia baino handiago denez, enpresak ezin izan du kapital propioei ordaintzeko ahalmena mantendu, nahiz eta kapital guztiei ordaintzekoa gehitu. Bestalde, 1988.an kostu proportzionalen portzentaia jaitsi egin da eta horregatik salmenten marjina handiagotu egin da.

19. ARIKETA. BALANTZEEN ANALISI OSOA

ELKAR S.A. enpresaren azken bi balantze eta emaitza-kontuak hauek dira (milaka pta.tan):

AKTIBOA	1. urtea	2. urtea
Makineria	6.000	12.000
Edifizioak	3.000	4.000
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	-3.000	-3.600
Lehengaiak	3.000	4.500
Bideango produktuak	1.000	3.000
Produktu bukatuak	3.000	6.000
Bezeroak	3.500	6.700
Bankuak	<u>1.500</u>	<u>3.000</u>
Guztira	18.000	35.600
PASIBOA		
Kapital soziala	7.300	7.300
Erreserbak	2.500	2.900
Epe luzerako maileguak	2.000	3.000
Epe laburrerako maileguak	2.500	13.000
Hornitzaileak	1.100	3.000
Galdu-Irabaziak	<u>2.600</u>	<u>6.400</u>
Guztira	18.000	35.600
EMAITZAK	1. urtea	2. urtea
Salmentak (unitateak)	<u>2.000</u>	<u>4.000</u>
Salmentak	14.000	30.000
Lehengaiak (kontsumoa)	-3.000	-7.000
Transformazio-kostua	-4.000	-10.000
Merkatal kostuak	-500	-1.200
Gastu finantzarioak	-800	-1.800
Amortizazioak	-600	-600
Egitura-kargak	<u>-2.500</u>	<u>-3.000</u>
Emaitza garbia	2.600	6.400
Emaitza-banaketa:		
Zergak	1.000	2.000
Dibidendu aktiboa	1.200	3.900
Erreserbak	400	500

Ondoko hau egitea eskatzen da:

- 1.- Ondare-analisia: Fondoen jatorri eta aplikazioaren egoera-orria, aktibo eta pasiboko egiturak (ondare-masatan sailkatu ondoren), maniobra-fondoa.
- 2.- Finantz analisia: Ratioak (Altxortegia, likidezia, zorpetzea eta bermea) errotazioak eta batezbesteko heltze-aroa.
- 3.- Analisi ekonomikoa: emaitza-kontuaren azterketa, errentagarritasun finantzarioa, ekonomikoa eta akziodunena, salmenten marjina, errentagarritasun-ataria.
- 4.- Ondorioak adieraztea.

Ebazpidea:

1) Ondare-analisia

- a) Balantze-sailkapena ondare-masatan, aktibo eta pasiboaren egiturak eta fondoen aplikazio eta jatorrien egoera-orria (Irabaziak banatu ondoren):

1. urtea		2. urtea		Aldaketak	
Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Aplikazioa	Jatorria

AKTIBOA

Erabilgarria	1.500	8,3	3.000	8,4	1.500	—
Bihurgarria	3.500	19,4	6.700	18,8	3.200	—
Izakinak	7.000	38,8	13.500	37,8	6.500	—
Ibilgetua	<u>6.000</u>	<u>33,5</u>	<u>12.400</u>	<u>35</u>	6.400	—
Guztira	18.000	100	35.600	100		

PASIBOA

Epe lab. zorrak	5.800	32,2	21.900	61,5	—	16.100
Epe luz. zorrak	2.000	11,1	3.000	8,4	—	1.000
Kap. eta erres.	<u>10.200</u>	<u>56,7</u>	<u>10.700</u>	<u>30,1</u>	—	<u>500</u>
Guztira	18.000	100	35.600	100	17.600	17.600

Aktiboa:

Mantendu egin da.

Pasiboa:

Epe laburrerako zorrak: Bikoiztu egin dira.

Epe luzerako zorrak: Murriztu egin dira.

Fondo propioak: Murriztapen nabaria jasan dute.

b) Fondoeren aplikazio eta jatorria

1.– Baliabideen aplikazio iraunkorrak:

Aktibo finkoaren erosketa (1)	<u>7.000</u>
Guztira	7.000

2.– Lorturiko baliabide iraunkorrak:

Fondo propioen gehikuntza	500
Lortutako maileguak	1.000
Ekitaldiko amortizazioa (1)	600
Zirkulatzailereen murriztapena	<u>4.900</u>
Guztira	7.000

3.– Zirkulatzailereen aldaketak:

Aktiboak	
Erabilgarria	1.500
Bihurgarria	3.200
Izakinak	6.500
Zirkulatzailere. murriztapena	<u>4.900</u>
Guztira	16.100

Pasiboak	
Epe laburrerako zorrak	<u>16.100</u>
Guztira	16.100

(1) Fondoeren jatorria eta aplikazioaren egoera–orrian amortizazioak aparte datoz azken aurkezpenean. Honela, errazago ikusten dira ibilgetuaren gehikuntza (aplikazioa) eta amortizazioaren bitartez lortutako fondoak.

Lortutako baliabide iraunkorrak ez dira aski izan inbertsio iraunkorrak finantzatzeko. Aktibo finkoa baliabide iragankorren bidez finantzatzen ari da.

c) Ondare–koerlazioak (laburtuta)

	<u>1. urtea</u>	<u>2. urtea</u>
Kapitala eta erreserbak	10.200	10.700
Epe luzerako zorrak	<u>2.000</u>	<u>3.000</u>
Baliabide iraunkorrak	12.200	13.700
– Ibilgetua	<u>-6.000</u>	<u>-12.400</u>
Maniobra–fondoak	5.800	1.300

Maniobra-fondoa jaisten doa eta horrela jarraituz gero ordainketa-etendura eduki dezake.

d) Adierazpen grafikoa

1. urtea

AKTIBOA		PASIBOA
Ibilgetua %33	M.-F. %23,7	Baliabide iraunkorrak %67,8
Izakinak %38,8		Baliabide iragankorrak %32,2
Bihurgarria Erabilg. %27,7		

$$\text{Altxortegia} = 27,7 - 32,2 = -4,5$$

Baliabide iraunkorrak ibilgetu osoa eta izakinen zati handi bat finantzatzen dute. Izakinak salduz gero epe laburreko zorrak ordaintzeko izango du.

2. urtea

AKTIBOA		PASIBOA
Ibilgetua %35	M.-F. %-3,5	Baliabide iraunkorrak %38,5
Izakinak %37,8		Baliabide iragankorrak %61,5
Bihurgarria Erabilg. %27,2		

$$\text{Altxortegia} = 27,2 - 61,5 = -34,3$$

Nahiz eta izakinak saldu ordainketa-etendura eduki dezake.

2.- Finantz analisia

a) Ratioak

$$\bullet \text{ Zorpetze edo finantz autonomia} = \frac{\text{Zorrak}}{\text{Fon. Pr.}} \times 100 = \begin{array}{cc} \underline{1.\text{urtea}} & \underline{2.\text{urtea}} \\ \%76 & \%232 \end{array}$$

2. urtean %100etik pasatu da. Honek hartzekodunen eskuetan dagoela esan nahi du.

$$\bullet \text{ Altxortegia} = \frac{\text{Erabilg. + Bihurg.}}{\text{Epe labur. zorrak}} = \begin{array}{ccc} \underline{1.\text{urtea}} & \underline{2.\text{urtea}} & \underline{\text{Normala}} \\ 0,86 & 0,44 & 1 \end{array}$$

$$\bullet \text{ Likidezia, kaudimena, edo ordainketa-etendurako tartea} = \frac{\text{Erabil. + Bihur + Izakinak}}{\text{Epe labur. zorrak}} = \begin{array}{ccc} 2 & 1 & 2 \end{array}$$

$$\bullet \text{ Bermea edo porroterako tartea} = \frac{\text{Aktibo errealak}}{\text{zorrak}} = \begin{array}{ccc} 2,3 & 1,4 & 1,5 \end{array}$$

2. urtean desoreka finantzario nabarmenagoak ditu.

b) Errotazio eta epeak (Batezbesteko heltze-aroa):

	<u>1.urtea</u>	<u>2.urtea</u>	
Lehengaiak = $\frac{\text{Lehengai-kontsumoa}}{\text{Batezbesteko stocka}}$ =	1	1,8	aldiz
Leheng. horniketa-epea = $\frac{12}{\text{Errotazioa}}$ =	12	6,6	hilabete
Bidean. prod. = $\frac{\text{Produkzio-kostua}}{\text{Batezbesteko stocka}}$ =	7	8,5	aldiz
Fabrikazio-epea = $\frac{12}{\text{Errotazioa}}$ =	1,7	1,4	hilabete
P. bukatuak = $\frac{\text{Salm.-kostua}}{\text{Batezb. stocka}}$ =	2,5	3,1	aldiz

$$\text{Salmenta-epea} = \frac{12}{\text{Errotazioa}} = \quad 4,8 \quad 3,8 \quad \text{hilabete}$$

$$\text{Bezeroak} = \frac{\text{Salmentak}}{\text{Batezb. saldoa}} = \quad 4 \quad 5,8 \quad \text{aldiz}$$

$$\text{Kobranta-epea} = \frac{12}{\text{Errotazioa}} = \quad 3 \quad 2 \quad \text{hilabete}$$

$$\text{Batezb. heltze-aroa} = \text{Horniketa-epea} + \text{+ fabrikazioa} + \text{Salmenta} + \text{Kobranta} = \quad 21,5 \quad 13,8 \quad \text{hilabete}$$

$$\text{Horn. ord. epea} = \frac{\text{Hor. (bat. saldoa)}}{\text{Leh.-erosketa}} = \quad 4 \quad 3,5 \quad \text{hilabete}$$

Oharrak:

Lehen urteko batezbesteko saldoa ekitaldi horren datuekien bat dator.

Produktzio-kostua: Lehengaiak + Transformazioa

Salmenta-kostua: Produktio-kostua + Produktu bukatuen hasierako izakinak – Produktu bukatuen bukaerako izakinak

2. urtean batezbesteko heltze-aroa murriztu egin da eta ordainketa-epea ere bai, baina ez proportzio berdinean. Garbi ikus daiteke zailtasun finantzarioak sortzen ari direla

3.- Analisi ekonomikoa

a) Emaizen azterketa

Kontzeptuak	1. urtea		2. urtea	
Salmenta garbiak	14.000	100	30.000	100
Salm.-kost. (Leh.+Trans.)	<u>7.000</u>	<u>50</u>	<u>17.000</u>	<u>56,66</u>
Marjina industrialala	7.000	50	13.000	43,34
Merkatal kostuak	<u>500</u>	<u>3,5</u>	<u>1.200</u>	<u>4</u>
Merkatal marjina	6.500	46,5	11.800	39,34
Egit.-kargak + Amortiz.	<u>3.100</u>		<u>3.600</u>	
Ustiapen-emaiza	3.400		8.200	
Gastu finantzarioak	<u>800</u>		<u>1.800</u>	
Emaiza garbia	2.600		6.400	
Irabazien gaineko zergak	<u>1.000</u>		<u>2.000</u>	
Irabazi erabilgarria	1.600		4.400	
Dibidendu aktiboa	<u>1.200</u>		<u>3.900</u>	
Erreserbak	400		500	
Amortizazioak	<u>600</u>		<u>600</u>	
Autofinantzaketa	1.000		1.100	

b) Errentagarritasun-ataria

Salmentak – Kostu proportzionalak – Egitura-kargak = 0

<u>1. urtea</u>	<u>2. urtea</u>
8.387	13.726

Bi urteetan minimoak saltzen ditu. Horregatik ari da mozkina lortzen.

c) Errentagarritasun-indizeak

	1. urtea	2. urtea
E. finantzarioa = $\frac{\text{Mozkinak}}{\text{Kapital propioak}} \times 100$	%15,6	%41,1
E. ekonomikoa = $\frac{\text{Mozkinak}}{\text{Kapital totalak}} \times 100$	18,8	%23
Salmenten marjina = $\frac{\text{Mozkinak}}{\text{Salmentak}} \times 100$	%24,2	%27,3

$$\text{Errotazioa} = \frac{\text{Salmentak}}{\text{Aktibo totala}} \quad 0,77 \quad 0,84$$

$$\text{Akz. errent.} = \frac{\text{Dibidenduak}}{\text{Des. kap. + jaul.-prima}} \times 100 \quad \%16,4 \quad \%53,4$$

2. urtean errentagarriagoa da ikuspuntu guztietatik. Horren eragina hornitzaileen bitartez finantzatu delako da. Dakigunez, hornitzaileen bidez finantzatzen bagara, kostu finantzariarik ez da egoten.

Bestetik, nahiz eta kostu proportzionalen portzentaiak igoera jasan, salmentak ere kopuru handian igo egin dira.

Azken laburpena

- a) Ikuspuntu finantzarioa: 2. urtean desoreka finantzarioak ditu.
- b) Ikuspuntu ekonomikoa: Nahiz eta 2. urtean errentagarriagoa izan marjinak murrizten ari dira.

20. ARIKETA. BALANTZEEN ANALISI OSOA

Enpresa bateko Balantzeak (milaka pta.tan) eta Emaitzak (milaka pta.tan) hauek dira:

AKTIBOA	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Kutxa eta Bankuak	3.000	—	1.000
Bezeroak	2.000	2.500	5.000
Lehengaiak	1.500	2.500	3.000
Bideango produktuak	500	1.500	1.000
Produktu bukatuak	2.000	5.000	4.000
Makineria, instalazioak eta tresneria	4.000	10.000	10.000
Edifizioak eta beste eraikuntzak	2.000	3.500	4.000
Ibilgetu materialaren amort. meta.	<u>-3.000</u>	<u>-3.500</u>	<u>-5.000</u>
Guztira	12.000	21.500	23.000
PASIBOA			
Hornitzaileak	700	2.500	3.200
Epe laburrerako maileguak	2.300	10.200	8.000
Epe luzerako maileguak	1.000	2.500	2.000
Kapital soziala	5.000	5.500	5.500
Erreserbak	1.800	2.000	800
Galdu-Irabaziak	<u>1.200</u>	<u>-1.200</u>	<u>3.500</u>
Guztira	12.000	21.500	23.000
EMAITZAK	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Salmentak (Unitateak)	<u>1.000</u>	<u>1.250</u>	<u>2.500</u>
Salmentak	12.000	15.000	30.000
Lehengaiak (Kontsumoa)	4.000	5.000	10.000
Transformazio-kostua	3.000	4.500	6.000
Merkatal kostua	1.000	1.200	3.000
Gastu finantzarioak	2.000	4.000	5.000
Amortizazioak	300	1.000	1.000
Egitura-kargak	<u>500</u>	<u>500</u>	<u>1.500</u>
Emaitzak	1.200	-1.200	3.500
Emaitzak-banaketa:			
Zergak	400	—	1.200
Dibidendu aktiboa	600	—	1.700
Erreserbak	200	-1.200	600

Ondoko hau egitea eskatzen da:

- 1.- Ondare-analisia
- 2.- Finantz analisia
- 3.- Analisi ekonomikoa
- 4.- Ondorioak

Ebazpidea:

1) Ondare-analisia

- a) Balantze-sailkapena ondare-masatan, aktibo eta pasiboaren egiturak eta fondoaren aplikazio eta jatorrien egoera-orria: Irabaziak banatu ondoren

1. urtea		2. urtea		3. urtea		Aldaketak (1.ur.-2.ur.)		Aldaketak (2.ur.-3.ur.)	
Zenb.	%	Zenb.	%	Zenb.	%	Apl.	Jat.	Apl.	Jat.

AKTIBOA

Erabilgarria	3.000	25	-----	----	1.000	4,35	---	3.000	1.000	----
Bihurgarria	2.000	16,67	2.500	11,62	5.000	21,72	500	---	2.500	-----
Izakinak	4.000	33,33	9.000	39,54	8.000	34,76	5.000	---	---	1.000
Ibilgetua	<u>3.000</u>	<u>25</u>	<u>10.000</u>	<u>48,84</u>	<u>9.000</u>	<u>39,17</u>	7.000	---	-----	1.000
Guztira	12.000	100	21.500	100	23.000	100				

PASIBOA

Epe lab. zor.	4.000	33,33	12.700	59,07	14.100	61,3	---	8.700	---	1.400
Epe luz. zor.	1.000	8,33	2.500	11,62	2.000	8,7	---	1.500	500	---
Kap. eta er.	<u>7.000</u>	<u>58,34</u>	<u>6.300</u>	<u>29,31</u>	<u>6.900</u>	<u>30</u>	<u>700</u>	-----	-----	<u>600</u>
Guztira	12.000	100	21.500	100	23.000	100	13.200	13.200	4.000	4.000

Aktiboan:

Erabilgarria: %25etik zerora jaitsi zen eta %4,35era pasatu zen 3. urtean.
 Bihurgarria: 2. urtean zerbait jaitsi zen eta nahikoa gehitu zen 3. urtean.
 Izakinak: Gehikuntzarako joera txikia.
 Ibilgetua: 2. urtean bere portzentaia ia-ia bikoiztu egin zuen.

Pasiboan:

Epe laburrerako zorrak: Igoera handia, 2. urtean bereziki.
 Epe luzerako zorrak: aldaketa txikiak
 Fondo propioak: 2. urtean jaitsi egin dira izandako galerak zirela eta, nahiz eta kapital-zabalkuntza osatu; 3. urtean zerbait konpondu da.

b) Fondoen aplikazio eta jatorria

1.– Baliabideen aplikazio iraunkorrak:

	2. urtea	3.urtea
Fondo propioen murriztapena	700	—
Epe laburrerako zorren amortiz.	—	500
Aktibo finkoaren erosketa (1)	7.500	500
Zirkulatzailearen gehikuntza	<u>—</u>	<u>1.100</u>
Guztira	8.200	2.100

2.– Lorturiko baliabide iraunkorrak:

Fondo propioen gehikuntza	—	600
Lortutako maileguak	1.500	—
Ekitaldiko amortizazioa (1)	500	1.500
Zirkulatzailearen murriztapena	<u>6.200</u>	<u>—</u>
Guztira	8.200	2.100

3.– Zirkulatzailearen aldaketak:

Aktiboak		
Erabilgarria	–3.000	1.000
Bihurgarria	500	2.500
Izakinak	5.000	–1.000
Zirkul. murriztapen garbia (saldoa)	<u>6.200</u>	<u>—</u>
Guztira	8.700	2.500

Pasiboak		
Epe laburrerako zorrak	8.700	1.400
Zirkulatz. gehik. garbia (saldoa)	<u>—</u>	<u>1.100</u>
Guztira	8.700	2.500

(1) Fondoen jatorria eta aplikazioaren egoera–orrian amortizazioak aparte datoz, azken aurkezpenean behintzat. Horrela, garbiago ikusten da ibilgetuaren gehikuntza (baliabideen aplikazioa) eta amortizazioaren bidez lorturiko fondoak

2. urtean zirkulatzailearen jaitsiera nabaria ikusten da (6.200) zeren lorturiko baliabideak ez dira aski izan egindako inbertsioak finantzatu ahal izateko. Enpresak akats handia eduki du aktibo finkoa epe laburrerako zorrek finantzatu duelako. 3.urtean zirkulatzailea zerbait igo zen (1.100), baina ez aurreko ekitaldiko murriztapena babesteko adina.

c) Ondare-koerlazioak (laburturik)

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Epe luzerako zorrak	1.000	2.500	2.000
Kapitala eta erreserbak	<u>7.000</u>	<u>6.300</u>	<u>6.900</u>
Baliabide iraunkorrak	8.000	8.800	8.900
- Ibilgetua	<u>-3.000</u>	<u>-10.000</u>	<u>-9.000</u>
Maniobra-fondoa	5.000	-1.200	-100

Enpresaren gestioa penagarria izan dela ikusten da berriro. 1. urtean duen maniobra-fondo altutik (izakinak finantzatu ondoren, oraindik 1.000 sobratu dira) negatiboa izatera pasatu da 2. urtean; 3. urtean negatiboa izaten segitzen du, nahiz eta kantitate txikiagoan. Enpresa honek maniobra-fondo hori handiagotu egin beharko du fondo propioen bidez.

d) Adierazpen grafikoa

3. urtea beteko dugu (gainerakoak era berean aurkezten dira):

AKTIBOA		PASIBOA
Ibilgetua %39	M.-F. %-0,7	Baliabide iraunkorrak %38,7
Izakinak %35		Baliabide iragankorrak %61,3
Bihurgarria Erabilg. %26		

$$\text{Altxortegia} = 26 - 61,3 = -35,3 \text{ (negatiboa)}$$

Baliabide iraunkorrak ez dute ibilgetu osoa finantzatzen. Beraz, izakinak epe laburrerako zorren bidez finantzatzen dira osorik (ibilgetuaren zati bat ere bai) eta egoera honek ordainketa-etenduraren arriskua du.

Gauza bera adieraz daiteke beste era batera: Bihurgarria + Erabilgarria ez dira aski epe laburrerako zorrak ordaindu ahal izateko. Horiez gain izakin guztiak eta ibilgetuaren zati bat behar dira baliabide iragankorrak estaltzeko.

2.- Finantz analisia

a) Ratioak

	1. urtea	2. urtea	3. urtea	
• Zorpetze edo finantz. auton. = $\frac{\text{Zorrak}}{\text{Fon. Pr.}} \times 100 =$	%71,43	%241,27	%233,33	

1. urtean ezik, 2. eta 3. gehiegizkoa da (ez du %100etik pasatu behar). Beraz, enpresa hartzekodunen eskuetan aurkitzen da.

	1. urt.	2. urt.	3. urt.	Nor.
• Altxortegia = $\frac{\text{Erabilg. + Bihurg.}}{\text{Epe labur. zorrak}} =$	1,25	0,20	0,43	1

• Likidezia, kaudimena, edo ordainketa-etendurako tartea =				
= $\frac{\text{Erabil. + Bihur + Izakinak}}{\text{Epe labur. zorrak}} =$	2,25	0,91	0,99	2

• Bermea edo porroterako tartea = $\frac{\text{Aktibo errealak}}{\text{zorrak}} =$				
	1,5	1,41	1,43	1,5

2. eta 3. urteetan

desoreka finantzario handiak ditu, nahiz eta nolabaiteko hobekuntza txiki bat ikusi.

b) Errotazio eta epeak (Batezbesteko heltze-aroa):

	1. ur.	2. ur.	3. urt.	
Lehengaiak = $\frac{\text{Lehengai-kontsumoa}}{\text{Batezbesteko stocka}} =$	2,66	2,5	3,64	aldiz

Leheng. hornik.-epea = $\frac{12}{\text{Errotazioa}} =$	4,51	4,8	3,30	hilabete
---	------	-----	------	----------

Bidean. prod. = $\frac{\text{Produktzio-kostua}}{\text{Batezbes. stocka}} =$	14	9,5	12,8	aldiz
--	----	-----	------	-------

Fabrikazio-epea = $\frac{12}{\text{Errotazioa}} =$	0,86	1,26	0,94	hilabete
--	------	------	------	----------

$$P. \text{ bukatuak} = \frac{\text{Salm.-kostua}}{\text{Batezb. stocka}} = 3,5 \quad 1,86 \quad 3,78 \quad \text{aldiz}$$

$$\text{Salmenta-epea} = \frac{12}{\text{Errotazioa}} = 3,43 \quad 6,45 \quad 3,17 \quad \text{hilabete}$$

$$\text{Bezeroak} = \frac{\text{Salmentak}}{\text{Batezb. saldoa}} = 6 \quad 6,67 \quad 8 \quad \text{aldiz}$$

$$\text{Kobrantza-epea} = \frac{12}{\text{Errotazioa}} = 2 \quad 1,80 \quad 1,5 \quad \text{hilabete}$$

$$\text{Batezb. heltze-aroa} = \text{Horn.-epea} + \text{+ Fabrik. + Salm. + Kobrantza} = 10,8 \quad 14,31 \quad 8,91 \quad \text{hilabete}$$

$$\text{Horn. ord. epea} = \frac{\text{Hor. (bat. sal.)}}{\text{Leh.-erosketa}} = 2,1 \quad 3,84 \quad 6,84 \quad \text{hilabete}$$

Oharrak:

1. urteko batezbesteko saldoa ekitaldi horren datuekin batera dator, zeren aurreko urteko datuak berdinak zirela suposatzen baitu dugu.

Produkzio-kostua: Lehengaiak + Transformazioa

Salmenta-kostua: Produkzio-kostua + P. bukatuen hasierako izakinak – Produktu bukatuen bukaerako izakinak

Lehengai-erosketak = Kontsumoak, sinplifikatzeagatik

2. urtean batezbeseko heltze-aroa gehiegi luzatu da. 3. urtean zertxobait murriztu egin da. Ordainketa-epea luzatu egin da, agian zailtasun finantzarioak dituelako.

3.- Analisi ekonomikoa

a) Emaizten azterketa

Kontzeptuak	1. urtea		2. urtea		3. urtea	
Salmenta garbiak	12.000	100	15.000	100	30.000	100
Salm.-kos. (leh.+Trans.)	<u>7.000</u>	<u>58,33</u>	<u>9.500</u>	<u>63,33</u>	<u>16.000</u>	<u>53,33</u>
Marjina industrial	5.000	41,67	5.500	36,67	14.000	46,67
Merkatal kostuak	<u>1.000</u>	<u>8,33</u>	<u>1.200</u>	<u>8,00</u>	<u>3.000</u>	<u>10,00</u>
Merkatal marjina	4.000	33,34	4.300	28,67	11.000	36,67
Egit.-kargak + Amortiz.	<u>2.500</u>		<u>4.500</u>		<u>6.500</u>	
Ustiapen-emaizta	1.500		-200		4.500	
Gastu finantzarioak	<u>300</u>		<u>1.000</u>		<u>1.000</u>	
Emaizta garbia	1.200		-1.200		3.500	
Irabazien gaineko zergak	<u>400</u>		-----		<u>1.200</u>	
Irabazi erabilgarria	800		-1.200		2.300	
Dibidendu aktiboa	<u>600</u>		-----		<u>1.700</u>	
Erreserbak	200		-1.200		600	
Amortizazioak	<u>500</u>		<u>500</u>		<u>1.500</u>	
Autofinantzaketa	700		700		2.100	

b) Errentagarritasun-ataria

Salmentak – Kostu proportzionalak – Egitura-kargak = 0

1. urtea	2. urtea	3. urtea
8.400	19.019	20.455

2. urtean ez du minimoa saldu eta horregatik galtzen atera da ekitaldi horretan.

c) Errentagarritasun-indizeak

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
$E. \text{ fin.} = \frac{\text{Mozkinak}}{\text{Kapital propioak}} \times 100$	%11,42	-%19	%33,33
$E. \text{ ekon.} = \frac{\text{Mozkinak}}{\text{Kapital totalak}} \times 100$	%12,5	-%0,93	%15,21
$\text{Salm. marjina} = \frac{\text{Mozkinak}}{\text{Salmentak}} \times 100$	%12,5	-%1,33	%15
$\text{Errotazioa} = \frac{\text{Salmentak}}{\text{Aktibo totala}}$	1	0,69	1,30

$$\text{Ak. err.} = \frac{\text{Dibiden.}}{\text{Des. kap.+jaul.-sar.}} \times 100 \quad \%12 \quad 0 \quad \%30,9$$

2. urtean enpresa hau ez da errentagarria. Kostu finkoak asko hazi dira. 3. urtean kapital propioei nahiz kanpokoei ordaintzeko ahalmena berreskuratu egin du. Kanpotik lortu dituen kapitalen kostua, ematen duten errendimendua baino txikiagoa da.

Azken laburpena

- a) Ikuspuntu finantzarioa: 2. urtean izandako desoreka ez da 3.ean zuzendu, nahiz eta zerbait arindu.
- b) Ikuspuntu ekonomikoa: 2. urteko galera egitura-karga eta kostu finantzarioen igoera handiegiari dagokio.